

# Aikor!



txorierriko aldizkaria

Bizka

gure  
salbazio  
egintza  
alfantastu

Euskal  
Literatura II  
Mikel Zarate

Euskal  
Literatura  
Mikel Zarate

Euskal  
deklabinidea

Harren arkitipena

MIKEL ZARATE



UTOPIAREN FANTASIA

Mikel Zarate  
IPU ANTZERKO

biarriaren bultzad

Harriaren Zorabioz

Mikel Zarate  
Ipuin amezko  
alegi  
mingotsak

PIO MIESCH  
GURE  
MEZA  
DELIRIA

HABRGINTZA  
MINETAN

Mikel Zarate Lizarra

HIGIDURA  
BERDEZ

INFLUENCIAS DEL VASQUECE  
EN LA LENGUA CASTELLANA

Dakigunetik ez dakigunera





**Argitaratzailea:** TOTOAN,  
Txorierriko Euskara Elkarten  
Federazioa  
(Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili)  
Tf.: 94 452 34 47  
**e-posta:** totoan@topagunea.com  
aikortxori@yahoo.es

**Zuzendaria:** Xabier Goienetxe  
**Erredakzio burua:** Itxaso Marina

**Erredakzio taldea:** Fernando  
Larrondo, Jose Angel Mentxaka,  
Alberto Legarreta, Mari Tere  
Onaindia, Amagoia Guezuraga,  
Belen Gana, Arrekikili, Arantzazu  
Mendiguren.

**Kolaboratzaileak:** Iñaki Bilbao,  
Juanxu Bilbao, Jasone Astola,  
Lurdes Lasuen, Asier Oruetxebarria,  
Juan Luis Goikoetxea, Oihana  
Astobieta, Iñigo Gaztelu, Aitor Lopez,  
Bego Vicario, Txorierriko Gazte  
Mugimenda, Itxaso Bruña, Karmele  
Artetxe, Fernando Urritikotxea,, Mikel  
Zarate Yurrebaso, Behar Bidasoa  
GKE, Saionara eta Maripi, Aritz ta  
Nagel.

**Zuzentzaileak:** Alberto Mtz. de la  
Cuadra, Jagoba Zallo

**Publizitatea:** Arantza Atxutegi

**Banaketa:** Arantza Atxutegi, Beñat  
Aiartza

**Maketatzailea:** Ainara Torres

**Portada:** Alex Zallo

**Inprimategia:** Gertu

**Ale kopurua:** 5.000

**Lege gordailua:** BI 137-02 ISSN  
1578-9322

Aikor!-ek ez dau bere gain  
hartzen aldizkarian adierazi-  
tako esanen edota eritxien  
erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritza



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Kultura Saria

diruz lagundutako aldizkaria



13 Xabi Aburruzaga



23 Derioko denden elkarte



11 Joseba Iriando



14 Zamudioko Gazte Asanblada



12 Póg Mo Thón, musika taldea



26 Larrabetzuko Gaztelumendi abesbatza

### AURKIBIDEA

**4**Eritxia **5**Gutunak **6**Laburrak eta albisteak **10**Agenda **21**  
**11**Gurean izan da... Joseba Iriando **12**Gazteen txokoa **13**Gaztea eta...  
Xabi Aburruzaga **14**Zamudioko Gazte Asanblada **16**Mikel Zarate  
**20**Ameriketara joan nintzen **22**Zamudioko Udala **23**Derioko den-  
den elkarte **24** Politeknika Ikastegia Txorierri S. Koop.  
**26**Larrabetzuko Gaztelumendi abesbatza **28**Baserri mundua  
**29**Teknologia **30**Txorierritarrak munduan **31**Txorierri ezagutu  
**32**Sukaldaritza **33**Denbora pasa **34**Agenda

## AIKOR! aldizkariaren laguntzailea izan gura badozu, hemen dozu erea:

Izen-abizenak \_\_\_\_\_

Helbidea \_\_\_\_\_

Telefonoa \_\_\_\_\_ e-posta \_\_\_\_\_

Bankuko 20 zenbakiak \_\_\_\_\_

Egin zure aukera: 20 euro\_\_\_\_ beste kopuru bat\_\_\_\_

Orri hau helbide honetara bialdu: Sabino Arana plaza, 3 48170 Zamudio  
zure laguntzagaz aldizkaria hobetuko dogu!

# Emakumearen Eguna egunero da



Jasone Astola Elorriaga  
(Irakaslea)

Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatu ospatzen da, baina milaka neska eta emakumeren irudia da Kaliko gazte kolonbiar hau. Arrosa saltzaile hau munduan milioika emakumek bizi duten egoera negargarriaren isla besterik ez da: pbreak, desplazatuak eta inolako giza eskubiderik gabe.

Munduan milioika emakume bizi dira pobrezian. Etixerik ez, janaririk ez, hezkuntzarako aukerarik ez, tratu txarrak jasan beharra eta, gainera, seme-alabak hazteko ardura euren gainean.

Europako alde honetan bizi garen emakumeok konpromisoa hartu behar dugu beste emakume hauekin, gu bezala emakume jaio direlako, baina herrialde pobretan edo kultura zapalduetan jaioak izanik zigortuta bizitzera derrigortuta daudelako.

Egunero jan ahal izateko eta seme-alabei edo neba-ahizpei jaten eman ahal izateko lanik mesprezagarrienak egin behar dituzten emakume horiei eskaini nahi diet martxoaren 8ko hausnarketa. Mota guztietako zapalkuntzak eta jazarpenak pairatu behar dituzten emakumeei. Bekatu bakarria emakumea eta pobrea izatea duten emakumeei. Ez dezagun ahaztu munduan milioi batzuk direla emakume hauek, eta beraiei ere giza eskubide guzti-guztiak dagozkiela, gehienetan zer diren ez badakite ere.

Askok aurreratu dugula uste badugu ere, badakit hemen ere oraindik hamaika

*“Europako alde honetan bizi garen emakumeok konpromisoa hartu behar dugu beste emakume hauekin, gu bezala emakume jaio direlako”*

gauza dugula egiteko, baina ezin dugu aurrera egin munduko parte handi bat ahaztuta. Ez dezagun pentsa gu geure txokotxoan ondo izanda dena konponduta dugula. Munduan, eskubiderik gabe, bere buruaren jabe ez den emakumerik bizi den bitartean besteen motxila gainean pisu galanta izango da.

Argazkiko neskari eta, berari bezala, familiaren babesik eta maitasunik gabe, miseria gorrian hazi diren munduko milaka neska eta emakumeri eskaini nahi nieke martxoaren zortziko eta urteko egun askoko arreta. Gero emakume heldu direnean, jaso ez dutena ematen ikasteko kapaz izan daitezten eta etorkizuna aldatzeko indartsuak izan daitezten. Etorkizuna eginkizuna!



## Eskolaz aparte, partikularrak behar?



Bego Vicario  
(Irakaslea)

Askotan entzuten da gurasoen artean arratsaldero zelako saltsa egoten den etxean umeak eskolatik ekartzen dituen lanak betetzeko garaian: denbora falta, ulertu ezina, nekea... Batzuetan umearen eta gurasoen arteko harremana mikaztuta amaitzen da, eta hau dela eta laguntza zaila gertatzen den momentutik aurrera gurasoek, batzuetan tutoreak berak gomendatuta, umeari laguntza hori eman go dion norbait bilatzen dute. Gustatuko litzaidake jakitea Txorierriko eskoletako zenbat ume joaten den, laugarren mailatik (9/10 urte) aurrera edo agian lehenagotik, arratsaldero zabaltzen den bigarren eskola horretara, partikularra hain zuzen ere.

Gaur egungo gurasoek gure txikiekin egoteko denbora gutxiago daukagula esaten da, eta asko eta asko konturatu gara daukagun denbora hori gustura egoteko, harremanak sendotzeko eta baloreak transmititzeko erabili nahi dugula.

Errepaso klase hauek betidanik egon dira, orain 30 urte ere bai, baina klaseetako umeen kopurua jaitsi denetik (eskoia batzuetan ikasle kopurua zenbait gelatan partikularretako akademietakoa bestekoa da), haurren errendimendua ez al zen igo behar eta behingoz amaitu etxeko lanen zama honekin?.

*En fin, que a mí ni me va ni me viene, pero por comentarlooooo.....*


Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama edo [aikortxori@yahoo.es](mailto:aikortxori@yahoo.es)

## Iskanderren urtebetetzea (2004-02-09)

Otsailaren bederatzian, zure urtebetetzea. Bertan egin dugu topo, alkarri besarkada handia emanez. Eskerrik asko, lehenik eta behin, egindako nire osabaren lanagatik. Eta eskerrak ere lñakiri.

Zurekin izan dira musean jokaturako partidarik gogoangarrienak. Zurekin izandako une guztiak betirako sinatuta daude nire bihotzean, eta bihotzez eskertzen dizut nire laguna izatea momentu txar eta onenetan. Eskerrik asko.

Azkenik, poesia hau zeuretzat egin dut eta hor, nonbait bazaude, irakurri ezazu, zeuretzat baita nik egina. Betirako zure miresle iatorra.



### ISKAN GOGOAN ZAITUGU

Irabaziz joan zara Iskan  
Sua guztiori emanez,  
Kantuak landuz eta abestuz  
Aurrera mutila! esanez.  
Noizbait aurkituko gara lagun  
Galerak ahaztu izanez,  
Ordurarte jarraituko dugu  
Gogor, ekinez eta lanez.

Orlegiaz, zuriaz, gorriaz  
Argiarekin batera,  
Nator zurekin bederatzian  
Zoriontasuna ospatzera.  
Ahaleginez joango gara  
Irrifarreak jatera,  
Teilapean musean jokatzuz  
in sinestera.

ora gu! GORA ZU!  
alari guztietan,  
sten dizu, oraindik,  
ula gure bihotzetan.

*Mikel Zarate Yurrebaso*

## Martxoaren 11

*Behar Bidasoa GKE-ONG*

Sarri pentsatu dugu zerbait idatzi behar genukeela pertsonen desesperazioaz, planeta honetan milioika pertsonak bizi duten desesperazioaz hain zuzen ere. Martxoaren 11n gertatutako atentatua egonezin-biziez honen fruitua besterik ez da.

Bizitza guzti-guztiak ordezkazekin dira eta martxoaren 11ko hildakoek utzitako dolumina ikaragarria da. Zergatik? Zergatik egin zuten? Zerk eramaten du pertsona bat hurkoarengana gorroto hori sentitzera eta horrela hiltzera? Zertarako? Zer lortu nahi dute heriotza hauen bidez? Galdera asko, eta denak batera.

Hirugarren Munduko herrialdeetan izan garenok honelako edo antzeko galdera batzuk entzun izan ditugu sarri, sarriegi zoritxarrez, Zergatik ez da amaitzen gerra hau? Zergatik hil da semea/alaba gosez, munduan janaria sobran izanda? Zergatik hil zen senarra/emaztea gaixotasun honek jota, sendabidea badu? Zergatik daude interes ekonomikoak pertsonen gainetik? Beraiek ere galdera piloa dute aspalditik erantzunik gabe.

Galdera asko erantzunik gabe. Behar Bidasoa GKE-ONGtik zera adierazi nahi dugu: pertsona asko eta asko euren ustez injustua den egoera baten aurrean desesperatuta bizi dira eta desesperatuta dagoenak edozein gauza egin dezake.

Irailaren 11ren ostean, estatubatuarrek eta mendebaldar askok ez zuten konprenitu desesperazioa zegoela haren atzean. Ea gu beste modu batera ikusteko kapaz garen.

## Zamudioko Tximeletak liburutegian proiektua sarituta

Iazko maiatzetik ekainera bitartean Tximeletak liburutegian proiektua jarri zen martxan Zamudioko liburutegian. Haren helburua liburutegia umeengana hurbiltzea zen. Beraz, tximeletak izan balira bezala, bertako funtzionamendua eza-gutzeko aukera izan zuten, jolastuz eta ikasiz. Zamudioko eskolako ikasleek hartu zuten parte proiektu horretan.

Urtarrilean Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak lana saritu zuen eta 200 liburu oparitu zizkion Zamudioko liburutegiari. Sari hori eta Liburuaren Eguna ospatzeko, Isabel Millet ipuin kontalariak *Konturik gabeko herria* saioa eskainiko du apirilaren 22an, arrastiko seiak laurden gutxiagotan, liburutegian.



## Larrabetzuko inkestaren datuak

Aurreko aldizkarian aipatu genuen bezala, Larrabetzuko Geroa elkarteak inkesta bat egin du herrian egitekoa den saihezbideari buruz, herritarrek proiektuaz zein iritzi duten jakiteko. Dagoeneko 1.500 inkesta banatu dituzte eta 322 erantzun (errolaren %24) jaso dituzte. Bildutako datuen arabera, galderak erantzun dituztene-tatik %92 obrak beste alternatiba batzuk aztertu arte atzeratzearen alde

agertu dira. Gainera, %94,6k uste dute halako proiektuak egin baino lehen herritarrei galdetu egin behar zaiela. Azkenik, %43k ez dute uste saihezbideak trafikoaren arazoa kon-ponduko duenik.

Beste alde batetik, Txorierriko korrido-rea egin ostean herritik pasatzen den autoen kopurua aztertu du eta trafikoa erdira jaitsi dela egiaztatu du.

## Okerrak zuzenduz

Aurreko aldizkariko 22. orrialdean, Lezamako Baserritarren Elkarteari buruzko artikulua argi-taratu zen. Testu horretan aipatzen zen Kooperatibak martitzenetan eta eguenetan eskaintzen zuela aholkularitza-zerbitzua. Elkarrekin jakinarazitakoaren arabera, ostera, zerbitzu hori ez da martitzenetan eskaintzen, astelehenetan baino. Zerbitzuaren helburua aholkularitza tekniko ematea da, soloko lan-dareak, mahastiak eta fruta-arbolak modu egokian landu eta jagoteko. Produktzioaren funtzionamendu onerako behar diren analisiak egiteko aukera ere izaten da bertan. Zerbitzua Lezamako Udalak finantzatutakoa da.



## Derioko bandera berria

Apirilaren 2an, eguerdiko 12etan, Derioko ban-dera berria jasoko da Udaletxean. Beste alde batetik, herriko web orria eta udal irudi korpo-ratibo berria ere aurkeztuko dira.

## Kurtso berriak Loion

Aste Santu ostean paddle eta tenis ikastaro berriak hasiko dira Loion. Inork izena eman nahi badu ikastaro horietan, Udaletxera (944712310) deitu dezake, argibide gehiago jasotzeko.

## Galtzen ez diren jakiak batuko dira Loion

Iaz bezala, aurten ere galtzen ez diren jakiak batuko dira Loion, ondoren Saharara bidaltze-ko. Apirilean Loioko Udalak gutun bat bidaliko du herriko etxe guztietara, kanpaina honi buruzko argibide gehiago emateko.

# Iraintzea hitzez jotzea da erakusketa Zamudion

Martxoaren 8tik 12ra bitartean *Iraintzea hitzez jotzea da* erakusketa didaktikoa izan da Zamudioko liburutegian. Hiru zatik osatu dute erakusketa. Gregie de Maeyerrek idatzitako liburuaren bitartez, Juul umearen istorioa aurkeztu da. Beste guztiek Juulen lepotik barre egitzen dute: bere belarriez, bere begiez, bere toteltasunaz... Horrexegatik, Juulek bere gorputzetik ateratzen du besteen gustukoa ez den guztia; eurek onar dezaten.

Paco Abrilek egindako egurrezko eskulturek apaindu dute erakusketa. Horrezaz gainera, aditu bat umeekin solasean ibili da, iritziak aztertuz eta debatea sortuz euren artean. Irainak, laidoak eta beheramenduak ere indarkeriazko ekin-

tzak direla eta pairatzen dituen lur jota uzten dutela gaztetxoek ulertzea izan du helburu lan didaktiko honek. Txorierriko 113 umeek hartu dute parte erakusketan.



## Gazteentzako informazio zerbitzu berria

Urtarrilean gazteentzako informazio bulegoa ireki zen Behargintzaren Sondikako egoitzan, Txorierriko Mankomunitateak bultzatuta. Bertan, gazteek informazioa eskuratu ahal izango dute prestakuntzari, enpleguari eta aisialdiari buruz: bekak, aterpeak, curriculum idazteko ereduak... Sondikako bulegoa 09:00etatik 14:00etara egongo da zabalik egunero; hala ere, Txorierriko beste herrietan ere gazteentzako informazio puntuak jarriko dira asteen behin: astelehenetan, 16:00etatik 18:00etara, Larrabetzuko liburutegian; martitzenetan, 16:30etatik

18:30etara, Derioko Gaztelekun; eguaztenetan, 16:00etatik 18:00etara, Zamudioko KZ gunean, eta eguenetan, 16:00etatik 18:00etara, Lezamako liburutegian. Loian ere emango da informazio zerbitzua, barikuetan, 16:30etatik 18:30ra, Kultur Etxean.

Zerbitzuaren arduradunek Aikori-azaldutakoaren arabera, gazteak, batez ere, enpleguari eta prestakuntzari buruzko informazioaren bila etortzen dira bulegora. Beste alde batetik, egunkariak, Internet eta datu basea ere kontsultatzen dituzte.

## Herri Urratsera irteera

Sondikako Gaztetxeak Senpereko Herri Urratsera joateko irteera antolatuko du maiatzaren 9rako. Izena emateko epea apirilaren 19tik 25era bitartean izango da eta tokien zozketa apirilaren 28an. Herrian erroldatuek 8 euro ordaindu behar dute; erroldatu gabek, berriz, 12 euro; eta udal txarteldunek edota familia ugariok 5 euro. Argibide gehiago nahi izanez gero, galdetu Gaztetxean.

## Ume sahararrak hartzeko hitzaldia Sondikan

Udan ume sahararrak hartzeko informazio-hitzaldia izango da apirilaren 27an, asteartea, 20:00etan Sondikako udal Gaztetxean. Frente Polisarioaren Euskadiko delegazioak hartuko du parte ekitaldian.

## Gazteen parte hartzea eskatzen du Txuma Olague abesbatzak

Txuma Olague Sondikako abesbatzak Txorierriko gazte guztiak animatu nahi ditu abesbatzan parte hartzera. Abesbatzaren ordezkariak Aikori-azaldu diotenez, abesbatzak jende berria behar du, eta batez ere, jende gaztea.

Sondikako abesbatza hori orain 15 urte sortu zen, Txuma Olaguek bultzatuta. Taldean 28 partaide daude gaur egun, eta euskal kultura sustatzea dute helburu. Kontzertuak ematen dituzte, baina bestelako ekitaldiak ere egiten dituzte; esate baterako, txangoak.

## Zerainera irteera

Apirilaren 25ean bidaia bat egingo da, Zerainera joateko. Bidaia hori Larrabetzuko Udalak antolatu du, Arrekikili Euskara Elkartearekin eta Txinpasmendi Gurasoen Elkartearekin batera. Bertan, zerrategia eta museoa bisitatuko dira eta diaporama bat ikusteko aukera izango da. Argibide gehiago Anguleri kultur etxean eskura daitezke.

# Lezamako eskolako aterpea aurten egingo da

Lezamako Guraso Elkarteak presidente lanetan diharduenak Aikor!-i azaldu dienez, aspalditik beharrezkotzat jotzen zen eskolan aterpe berria egitea, baita gimnasioa handitzea ere. Hori dela eta, Udalarekin harremanetan jarri ziren, baina, azaldu digunez, hasiera batean baiezko erantzuna eman arren, geroago atzera egin zuten. Beraz, abenduan Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ordezkaritzara jo eta bertan jakinarazi zieten gimnasioa handitzeaz eurak arduratuko zirela, baina aterpea ez zela sartzen euren konpetentzien barruan. Haien arabera, obra horiek Udalak egin beharko lituzke, nahiz eta legez ez dagoen horretara derrigortuta.

Pasa den astean Guraso elkarteak izandako batzarrean iragarri zitzaion Udalak aterpea eraikitzeko asmoa zuela eta aurrekontuan diru partida bat onartu zuela hartarako. Hala ere, Guraso

Elkarteak ez du jakinarazpen ofizialik jaso, eta Udalarekin beste bilera bat izateko eskatu du, zelako proiektua egin gura duen jakiteko.

Beste alde batetik, Aikor!-ek Luis Ramón Alvarez Lezamako alkatearekin egin du berba, eta adierazi digu Udalbatzak ardura handia hartzen duela eskolaren beharriaz erantzuteko, eta horregatik aterpea eraikiko duela, nahiz eta Udalaren konpetentzia izan ez. Gainera, oso argi utzi gura izan du proiektuaren alde egon direla beti, eta inoiz ez dutela atzera egin. Honela bada, aterpea egiteko 60.000 euroko diru partida jasotzen du aurtengo aurrekontuak. Azkenik esan digu elkarteari orain arteko azalpen guztiak ahoz eman zaizkiola, baina ez dutela inolako arazorik hemendik aurrera idatziz emateko. Aterpea eraikitzeko lanak, beraz, laster hastekoak dira.



## Mankomunitateak itzultzaile eta zuzentzaile zerbitzua eskainiko du

Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak hainbat bilera egin ditu Txorierriko kultur eta kirol taldeekin eta elizaren ordezkariekin, haien funtzionamenduaren berri izateko. Taldeon beharrianak kontuan hartuta, Euskara Zerbitzuak laguntza eskaini die, euskararen presentzia handiagoa izan dadin barne nahiz kanpoko komunikazioetan. Beraz, taldeok edozein eratako agiriak —aktak, bilera deia, gonbidapen txartela...— idatzi behar dituztenean, testua itzultzeko eta zuzentzeko zerbitzua eskatu ahal izango dute. Testuak euskaraz nahiz gaztelaniaz egiteko aukera ere emango zaie. Beste alde batetik, euren lana aurrera eramateko materialik behar izanez gero, Euskara Zerbitzuak jakinaraziko die non eta zelan eskuratu daitekeen.

## Iparraldera irteera antolatu du Lagatzuk

Zamudioko Lagatzu Euskara Alkarteak bidaia bat antolatu du apirilaren 24 eta 25ean Iparraldera joateko. Domekan Baigorri urtero ospatzen den Nafarroa Egunean egoteko aukera izango da; zapatuan, berriz, inguruko beste txokoren bat bisitatuko da. Bidaiak 36 euro balio du; prezio horren barruan sartzen dira Heletan afaltzea, lo egitea eta gosaltzea. Egitaraua guztiz zehaztuta egon ez arren, interesatuek izena eman dezakete 944523447 telefono zenbakira deituta. Lekua mugatuta dago.

## Herri Urratsera

Maiatzaren 9an Senperen ospatuko da Herri Urrats, eta bertara joateko bidaia antolatu dute Lezama eta Larrabetzuko Udalek. Herri Urratsera joan nahi izanez gero, 25 urtera bitarteko erroldatuek 5 euro ordaindu beharko dute; 26 urtetik gorakoek, berriz, 8 euro ordainduko dute. Herriotan erroldatuta ez daudenentzako prezioa 12 euro izango da. Izena liburutegian eman daiteke apirilaren 26tik 30era arte. Bertan emango dira behar diren argibideak.

# Gazte Topagunea Itsasondon

Aberri Egunaren inguruan ohitura bihurtu jakun eran, aurten be zita berezia dogu Txorierriko eta Euskal Herri osoko gazteok. "Gu gara herria, egin dezagun bidea" lematzat hartuta apirilaren 9, 10, 11 eta 12an Gazte Topagunea izango dogu Itsasondon. Lau egunez amesten dogun Euskal Gazte Herria irudikatuko dogu.

Euskal gazteria errepresinoaren begi-puntuan dago aspalditik, baina jakin izan dogu ausardiaren eta irudimenaren bitartez geure bidea egiten. Horren erakusgarri da Gazte Topagunea. Hoge mila gaztetik gora alkatuko gara Itsasondon eta hau aurrera eroateko hiru mila bolondresak beteko dabez tamaina horretako ekitaldiek eskatzen dabezan beharrak.

Tailerrak, zinea, gaztetxe gunea, bertsoak, eztabaidak, akanpalekua, erakusketak, mahai inguruak, multimedia emanaldiak, Xirika, kale antzerkia, GazteSarea, presoekiko alkartasuna, sagardotegia... eta beste hainbat saltsa izango doguz lau egunetan zehar.

Txorierritik be autobusa egongo da Itsasondora joateko, eta aurkezpen ekitaldiak egingo dira: martxoaren 24an, Sondikan; 26an, Lezama, Zamudio eta Larrabetzun, eta 27an, Derion. Beraz, hartu kanpin denda eta ez galdu aukera.

*Txorierriko Gazte Mugimendua*

## Txakolin azoka Larrabetzun

Apirilaren 4an, 10:00etatik 14:30era bitartean, Txakolin Azoka izango da Larrabetzun, Udalak antolatuta. Plazan 40 bat postu ipiniko dira. Horrez gainera, txakolinaren gela ipiniko da eta ardoen kata egiteko teknika ikasi ahal izango da, enologo batek irakatsita. Eguerdiko 12etan topa ofiziala egingo da.

kolinararen gela ipiniko da eta ardoen kata egiteko teknika ikasi ahal izango da, enologo batek irakatsita. Eguerdiko 12etan topa ofiziala egingo da.

## Hautzaindegia izateko proiektua martxan Zamudion

Berritzeko lanak amaituta, Zamudioko Udaletxea bere betiko egoitzara eraman dute duela gutxi. Hori dela eta, Lehendakari Agirre plazako instalazioak –behin behineko egoitza izan direnak- libre gelditu eta bertan hautzaindegia jartzeko asmoa dauka Zamudioko Udalak. Sorkunde Aiarza alkateak azaldu digun bezala, lekua oso egokia da hautzaindegia kokatzeko "ondoan parkea izateaz gain, trafikotik urrun dagoelako, besteak beste". Horrezaz gainera, bertan ere ludoteka bat ipini nahi dute. Zamudioko Udalak Haurreskolak Kontsortzioarekin harremanetan jarri eta eurek proiektua onartzearen zain daude, egokitze beharrekin hasteko.

Beste alde batetik, posta bulegoa zegoen lokaletan ere hainbat tailer eta zerbitzu eskaintzeko asmoa dutela jakinarazi digu alkateak. "Herriko beharrianak aztertzen gabiltza eta udarako edo izango dugu dena zehaztuta", esan digu Sorkundek.

## Athletic-en instalazioetara txangoa

Sondikako Udalak Athleticen Lezaman dituen instalazioak bisitatzeko txangoa egingo du apirilaren 7an. Ludoteka I-eko zein II-ko umeek joateko aukera izango dute. Informazio zehatzagoa martxoaren 22tik aurrera jaso ahal izango da ludoteketan.



# Txorierriko ingurumen egoera

Aurreko aldizkarian aipatzen zen bezala, Tokiko Agenda 21 dela eta, ingurumen diagnostiko bat egiten ari dira Txorierriko herriak, euren ingurugiroa eta aspektu sozio-ekonomikoak nola dauden jakiteko. Diagnostikoari esker, herri bakoitzeko arazoak identifikatu, neurri zuzentzaileak hartu eta beste herri batzuekiko konparazioak egin daitezke. Hala, herrietako diagnostikoa oinarri hartuta, txorierritarren bizi kalitatea hobetzeko ekintza plana zehazteko aukera izango dute herriek. Horretarako, herri bakoitzeko Tokiko Agenda 21eko arduradunekin elkarlanean diagnostikoak izango dituen gaiak zehaztu dira eta jarraian gai bakoitzean aztertu nahi diren alderdiak agertzen dira.

Hasteko, ingurune soziala eta ekonomikoa deskribatuko da. Besteak beste, biztanleriaren estruktura, migrazio mugimenduak eta kultura aniztasuna. Ildo horretatik herriko sektore ekonomikoen banaketa aztertuko da, gizarteratzeko gutxieneko soldata jasotzen duten pertsonak eta langabeziaren eragina ahaztu gabe.

Bestalde, ingurune fisikoaren ikerketa egin nahi da herriko ezaugarri geologikoak nahiz ekologikoak azalduz. Garrantzitsua da ere herrian dauden natura guneek izan duten erabilera eta bilakaera ikustea, bertako fauna eta floraren egoera kontuan hartuz. Hori dela eta, lurralde antolamendua eta lurzorua erabilera xehetasunez miatuko da, lurraldea sektoreka nola banatzen den deskribatzeko.

Ondoren, lurraren, airearen eta uraren kalitatea zein den ikusiko da, industriek, baserriek, herri guneek eta trafikoak sortzen dituzten arazoak aztertuz. Honen harira mugikortasunaren ezaugarriak eta garraiobideen garapenari egingo zaie kasu. Gainera, zaratak eragiten dituen kalteak ere kontuan hartuko dira, baita ingu-



Agenda 21eko arduraduna Txorierriko teknikariek.

ruarekiko arriskutsuak izan daitezkeen jarduerak ere.

Funtsezkoa da baita ere natur baliabideen egoera ahalik eta ondoen ezagutzea. Hori dela eta, uraren eta energiaren kontsumoa, nahiz zabor eta bestelako hondakinen ekoizpena ikertuko da, biztanlego tasak zeintzuk diren ezagutzeko eta natur baliabide horien kudeaketarako aukeratu diren bideak deskribatzeko.

Azkenik, iraunkortasunaren oinarritzat hartzen diren sentsibilizatzeko kanpainak eta herrian abian jarri diren parte hartze

prozesuak berrikusiko dira, haien alde onak eta akatsak begiztatu eta, geroan, neurri zuzentzaileak aukeratu ahal izateko.

Tokiko Agenda 21 proiektuari buruzko alderdiren bat ezagutu edo zure herriaren diagnostikoa hobetzeko proposamen bat egin nahi izanez gero, Behargintzara hurbildu zaitezke edo ondoko helbide hauek erabili:

94 453 63 70 / 902 160 138  
udaltalde21@bgtxorierrri.com  
www.e-txorierrri.com  
www.ingurumena.net

Joseba Iriondo, kazetaria

# "Beti egoten naiz prest maletak egin eta joateko"

Azpeitiarra, telebistako aurpegi ezaguna, azken urteotan zorigaiztoko gerren berriemailea: Afganistan, Irak.... Berak idatzitako Palestina Hotela liburuari dagoeneko hirugarren edizioa egin zaio. Munduan gertatzen denaz oso informazio eskasa jasotzen dugula dio; eurek ere askotan ezer jakin barik zabaldu behar dutela hainbat informazio. Dena dela, kazetariak bertan egotea eta gertatzen denaren lekuko izatea positiboa dela uste du. Hitzaldiak eman, jendearekin egon eta gauzak kontatzea gustatzen zaio, baina agenda arazoengatik ezetz esan behar izaten du askotan. Derion hitzaldia eman zuen entzule ugarien aurrean, eta bertan galdera hauek egin genizkion.

## Zer moduz Bagdaden? Beldurrik?

Nahiko inkontziente izango gara, baina ez askorik. Irakiarrekin ondo konpontzen ginen, bizimodua normala zen. Gainera, herri hauek kanpotarrekin oso eskuzabakak dira, euren kulturen barneratua dute hori. Geroago, bonbardaketak hasi zirenean, egoera okertu egin zen, baina bonben zarata eta dardaretara ere ohitu egiten zara. Nik ez nuen lo gehiegirik egiten, baina nirekin joandakoek ederto egiten zuten. Gu eta geure hotelak errespetatuko gintuztela uste genuen. Guk baino txarra- go, geure inguruko jendeak eta familiak pasatzen dute, beharbada.

## Zeintzuk izan ziren unerik latzenak?

Bonbek egindako txikizioak; ospitale- ta joaten ginen eta askotan malkoekin ateratzen ginen handik. Beso eta familia barik geratu zen umea, esate baterako, oso gogorra izan zen. Amerikarrak sartu zirenean beldur handiagoa sentitu genuen. Gainera, Jose Couso hil egin zuten, eta ez dut uste nahi gabe tirokatu zutenik gure hotela. Inbasioa amaituta, lehenbailehen irten nahi genuen handik. Aireportutik ezin zenez, nahiko karabana arriskutsua antolatu genuen lurrez irteteko.

## Zein izan da zure ibilbide profesionala orain arte?

Karrera bukatu bezain laster, Euskadi Gaztean hasi nintzen, irratan. Handik 1996an korrespontsal joan nintzen Madrilera. Urte eta erdi egin eta ordutik nago albistegiak aurkezten. Noizean behin bidaiak egiten ditut, ahal ditudan gehienak, nahiz eta ez nauten nahi adina bidaltzen. Afganistanen eta Irakeko inbasioan izan naiz.

## Gogorik baduzu holako leku gehiagoe- tara joateko?

Orain Haitira joango nintzateke, baina ez da hain garbi ikusten, eta gero hainbat lekutara, Afrikara esate baterako. Beti joateko prest, bihar bertan. Ez joateko arrazoa dirua izaten da gehienetan. Oso garestia da eta gurearen moduko komunikabide txiki batentzat esfortzu handia da eta gauzak ondo pentsatu beharra dago. Gustatuko litzaiguke guztietara joatea, baina nire jefeari ez zaizkio kontuak beti ondo ateratzen, eta zaila da, dirutza handia behar delako.



## Igartzen da telebista txiki batean lan egiten duzuela?

Bai, badaude gerra batzuk diruaren arabera erabakitzen direnak. Adibidez, Afganistanen sartzeari diru kontua zen, talibanei ordaindu behar zitzaielako, edo, bestela, Iparraldeko aliantzari. Beste batzuk ez dira hala, gu pribilegiatu batzuk izan ginen Iraken, brigadistei esker harreman onak geneuzkalako gobernuarekin. Telebista txiki bat izan arren, eskusiba on bat lor dezakezu.



Testua eta argazkiak: Jose Angel Mentxaka



# Goranzko bidea



Póg Mo Thón-eko taldekideak: ahotsa: Markel; Kitarrak: Kaska eta Beñat; Baxua: Juanma, eta Bateria: Pablo.

**Denok gozatzen ditugu hainbat talde, diskman-ean jarri eta ordu osoa igarotzen dugu gustuko taldea entzuten. Baina galdera da, ea nola heltzen diren taldeak maila horretara? Taldea: Mungiako Póg Mo Thón. Bi maketa grabatu dituzte eta lehenengo diska kaleratzera doaz. Taldekide bat elkarrizketatu dugu. Hona hemen egindako galderak:**

## **Nola sortu zen taldea?**

Orain dela bost urte sortu zen taldea... Baina aurretik beste pertsona batzuk egon ziren, beste estilo batzutakoak, eta ni orain dela urte bete sartu nintzen.

## **Zergatik izen hori?**

Gaelikoa da. Abeslariaren arrebak Irlandatik bueltan izen hori zeraman kamisetan. Horrexegatik aukeratu zen. Beste barik

## **Zelan lortu zenuten lehenengo kontzertua? Nola izan zen? Eta handik aurrera?**

Taberna batera joan, eta galdetu *-Hemen kontzerturik ematen da?* Eta zeozer grabatuta eduki ezkerorak erakutsi. Neure lehenengo kontzertua Mungiako jailetan izan zen eta ondo, beno, hasikeran larri. Orain diskoarekin kontzertuak lortzea askoz errazagoa da. Orain hobeto.

## **Nola lortu zenuten maketa grabatzea?**

Maketa bost pertsonaren artean

ordaintzea erraza da eta bi maketa daukagu momentu honetan, baina diskoarena... Jendeak uste duena baino gehiago kostatzen da disko bat ateratzea.

## **Zein abeslarik edo taldek eragin du zuengan?**

Bakoitzak bere gustuko taldeak ditu, gehienak kanpokoak eta estilo guztietakoak, eta herritik hasita TTLT,...

## **Nork egiten ditu letrak eta nork konposatzen du musika?**

Musika eta orain letrak bostok egiten ditugu, baina lehen Kaskarillak eta Patriciak -taldekoka ez denak- egiten zituzten letrak. Gaztelaniaz dira eta euskarazko kanta bakarra *Zauritu bat jaso dute* Igor Estankona poetak idatzi zigan.

## **Zein publikoari zuzenduta dago?**

Denontzat, baina gehien bat jende gaztearentzat.

## **Estilo aldetik hutsunerik bete duzuela uste duzue?**

Azken batean nik uste dut dena dagoela asmatuta. Saiatzen zara zerbait berria egiten, baina gero beti esango dizu norbaitek *-Ez dakit noren antza daukazu...*

## **Uzteko asmoa izan duzue noizbait?**

Nik ez, baina estudioan bertan momentu oso gogorrak egon ziren, irten lanetik edo ikasketatik eta sei edo zazpi ordu jarraian, toma bat, beste toma bat,...

## **Etorkizunera begira zelako planak daukazue?**

Diskoa grabatu dugunez, mugitzea eta kontzertuak ematea.

**Taldearen web-gunea:**  
**[www.pogmothon.com](http://www.pogmothon.com)**

Testua: Itxaso Bruña



# “Euskal Herriko kultura atzerriera eramateak gozamen handia ematen dit”

Otsailaren 27an, Bilboko Kafe Antzokian aurkeztu zen aurtengo Ibilaldiaren abestia: *Alkarregaz heldu*. Xabier Aburruzaga trikitilaria konposatu du kantua, eta Fredi Paia bertsolariak idatzi du letra. Ahotsa, berriz, Roberto Mosok, Afrika Bibangek eta Eñaut Elorrietak jarri dute. Aikor!-ek Xabirekin hitz egiteko aukera izan du.

**Zeren bila ibili zara musika konposatzeko orduan?**

Denen gustuko kanta egiten saiatu naiz, hori oso erraza ez bada ere. Alde batetik, lelo sinple eta zuzena nahi nuen, jendeari erraz ailegatzeko modukoa, eta beste alde batetik moldaketa txukunaren bila ere ibili nintzen. Horrela, bada, estrofak landuagoak dira.

**Folk estiloaren kutsua...**

Egia da folkarekin harreman estuagoa dudala, eta kutsu hori egon badago. Hala ere, abestiak badauka beste musika mota batzuen eragina ere.

**Kontaguzu zelan izan den grabaketa.**

Hiru egun eman genituen Elkar estudioetan grabatzen; denbora gutxi. Halako grabaketa bat arratsalde batean egin daitekeela ematen du, baina askoz konplexuagoa da kontua: instrumentu guztiak eta ahotsak banan-banan probatu behar dira. Dena dela, Jean Phocas izan dugu teknikari, eta berak lan itzela egin du abestia behar bezala entzun dadin. Beste alde batetik, musikarion artean ere giro polita sortu zen. Nahiz eta musika mota ezberdinak jorratu, Ibilaldiaren alde batu ginen guztiok, eta hori azken emaitzan igarri egiten da, nire ustez.

**Zaila izan da musika konposatzea?**

Niretzat konposatzea da lana; ez kasualitatez ailegatzeko den gauza. Ideia on bat hartu eta hortik hasten naiz lanean. Abesti honi dagokionez, abuztuan hasi eta abendurako konposatuta neukan doinua. Nolanahi ere, kanta hau sekula ez nuen neuretzat egingo, beste estilo bat lantzen dudalako.

**Baina instrumentuen moldaketak –gitarra akustikoa, mandolina, trikitixa, biolina...– ere lan handia emango zizun...**

Beno, moldaketa lanak egiten direnean, oso ondo pentsatu behar duzu instrumentu bakoitzarekin zelan egin. Alberto Rodriguez nire taldeko gitarra-joleak laguntza handia eman dit horretan. Beste taldekideen ekarpenak ere hartu ditugu kontuan.

**Eta letra Fredi Paia...**

Etxean buru-belarri ibili ginen lanean; melodiaren oinarria sortzen ni eta bertsoak egiten bera. Oso erraza izan da berarekin lan egitea.

**Zelan ailegatu zitzaizun abestia konposatzeko proposamena?**

Ikastolaren deia abuztuan jaso nuen, Irlandan nengoela. Aurreko urtean maketa kaleratu nuen eta eurek entzun omen zuten... Hasieran txantxa zela pentsatu nuen, izan ere, halako abestiak talde eza-gunek egiten dituzte normalean. Gero, neure buruari esan nion –“Aukera ondo aprobeixatu behar duzu, txo”.

**Zutaz arituko gara orain. Trikitixa irakasteaz gainera kontzertuak eskaintzen dituzu bai Euskal Herrian eta bai kanpoan ere...**

Bai, urtero izaten dugu kontzertu pare bat Frantzian, Irlandan, Italian... Eskola ematea asko gustatzen zait, baina musikaritzat daukat neure burua, eta Euskal Herriko kultura atzerriera eramateak gozamen handia ematen dit.

**Etorkizunerako planik?**

Diskoa prestatzen gabiltza, ea datorren urtean kaleratzeko aukerarik dugun.



**Estiloa?**

Trikitixa eta perkusioa entzunda folkarekin gogora daiteke jendeak, baina nik esango nuke gure estiloak beste musika mota batzuen eragina duela. Fusioa –musika ezberdinen nahasketa– izugarri gustatzen zait.

**Ezkerraldekoa zara, zer egiten du Portugaleteko batek Zamudion?**

Portugalete hiri handia da eta leku lasaia behar nuen neure musikarako. Zamudio gustatu eta etxebizitza erosi nuen bertan. Oso gustura nago. Gainera, euskaraz bizitzeko aukera ere badaukat hemen.

# “Elkarrekin lan eginez gero, gazteok gai gara gauza politak egiteko”

Zamudioko Gazte Asanblada 1995eko apirilean sortu zen, herriko talde batek bultzatuta. Aisialdiari zegokionez, herriak ez zien aukera handirik ematen gazteei, eta hutsunea betetzea erabaki zuten, *“geuk dakigulako beste inork baino hobeto zeintzuk diren gazteon beharrianak”*, azaldu digute Alaitz Ziordia eta Aritz Petralanda taldekideek. Herriko plazan egindako lehenengo bileran 20 lagun bildu ziren, eta harrezkero gogotsu ibili dira ekintzak antolatzen eta gazteria herriaren motorra dela erakusten.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

## Helburua, beraz...

Gazte Asanblada herriko gazte guztion topagunea izatea nahi dugu: adin eta pen-tsaera ezberdineko gazteok bertan elkar-tzea eta guztion artean geure beharrianak betetzea.

Gazteok hamasei urte bete arte nahiko estrukturatuta daukagu aisialdia: eskolaz kanpoko aktibitateak, Udalak antolatzen dituen ekintzak... Baina, gero? Geure iri-tziz, herriak ez digu inongo aukerarik ema-ten. Hala ere, ez dugu uste inoren zain egon behar dugunik, hutsune hori guk geuk bete behar dugu. Gainera, bederatzi urte honetan horixe erakutsi dugu, herriko hainbat jai eta jaialditan parte hartuz, ohi-turak berpiztuz (inauteriak, sasimartxo, San Joan gaua...), neskek ere Santa Agedan parte hartzea bultzatuz...

## Horretaz aparte zelango ekintzak anto-latzen dituzue?

Hitzaldiak, txangoak, aste kulturalak, euskara asteak, Olentzero eguna, Martxoaren 8a... Eta, noski, herriko beste taldeek edo eskolak antolatutako ekital-dietan ere hartzen dugu parte.

## Eta ekintza horiek guztiok aurrera era-mateko dirua behar da... Zuek ez duzue dirulaguntzarik jasotzen, nola konpon-zen zarete?

Ba, kamisetak, metxeroak eta halakoak salduz. Horrezaz gainera, herriko jaietan txosna ipintzen dugu. Ez da diru askorik ateratzen, baina guretzat nahikoa da.

## Ezta lokalik ere...

Euskotrenen lokalak eta Udalak dituen instalazio batzuk okupatu genituen, baina orduko alkateak ertzainei deitu zien eta beltzek bota gintuzten handik. Bederatzi

urte daramatzagu lokal barik... Bilerak herriko plazako banku batean egiten ditu-gu, beraz.

## Zer duzue egiteko oraindik?

Gure helburu nagusia lokala edukitzea da. Gainera uste dugu, halakorik lortzen ez badugu, ezin izango dugula aurrera egin. Udalari hainbat aldiz eskatu diogu, baina berdin jarraitzen dugu. Biltzeko tokia iza-nez gero, guk geuk gestionatuko genuke; herriko gazteok bertan elkartu eta guztion artean erantzungo genieke geure beharri-zanei. Elkarrekin lan ok gai gara, gure egiteko.

## Oztoporik izaten zeuen lana aurrera-teko...

Dirua, lokalak... D oraingo Udalbatzare-gu arazorik. Euren a biltzen utzi digute. baino ez zizkigut. Esaten ziguten ez gir turala, nahiz eta lan herriaren mesedetan egin eta mundu guz-tiak geu ezagutu... Orduan, Morokile kul tur elkarte lez legali zatu behar izai genuen. Gazte Asanblada (Morokil lehen kaleratze genuen fanzina zen).

## Zelako bilakaera izan du Gazte Asanbladak urte hauetan?

Ilusio handia zegoen hasieran, eta geure ahalegin guztiak, batez ere, lokala lortzeko helburura bideratu genituen. Harremanetan jarri ginen Udalarekin, sina-durak bildu genituen, Udaletxeko ateari lotuta jarri ginen, akanpadak egin genituen plazan, kontzentrazioak Udaletxeko teila-tuan... Baina ilusio hori lehenengo okupa-zioan gelditu zen: bota egin gintuzten, batzuek epaiketa izan zuten gero... Gogorra izan zen. Horregatik erabaki genuen geure burua ez nekatzea eta herri-rako lan egiten jarraitzea. Hala eta guztiz



# “Aurtengo jaialdia iazkoa bezain arrakastatsua izatea espero dugu”

Duda barik, Zamudioko Gazte Asanbladak antolatzen dituen ekintzarik garrantzitsuenetariko bat jaialdia izaten da. Aurtun apirilaren 24an egingo da eta bertan, gaueko kontzertuez gainera, hainbat ekintza izango dira egun osoan. Jaialdi hori Gazte Asanblada sortu zenetik ospatzen da, baina azken urte hauetan proiektu hau gero eta handiagoa da eta gazte askoren topagune bilakatu da gaur egun; izan ere, Txorierriko gazteez gainera, Bizkaiko beste herri askotakoak ere biltzen dira Zamudiora. *“Batzuetan kostatzen zaigu sinestea geuk egiten dugula halako jaialdi bat. Dena dela, geure alboko jendearen laguntza ere izaten dugu hainbat momentutan”.*

## Dena prest?

Urtarrilean hasi ginen gauzak antolatzen. Hainbat batzorde sortu eta bakoitzak ardura bat hartu du: azpiegitura, apainketa, txosnak, eszenatokia... Propaganda da zereginik garrantzitsuenena. Bizkai osoan zehar zabaltzen dugu komunikabideen bidez, kartelen bidez... Horretaz aparte, beste gazte asanbladetakoei eta gaztetxeetakoiei bidaltzen zaie gonbidapena. Gipuzkoa eta Arabako leku batzuetaraino ere heltzen da jaialdiaren albistea.

## Talde potenteak ekartzen dituzue. Enrollatu egiten dira?

Beno, halako kasuetan prezio berezia egiten ei dute, baina ez pentsa! Gure lagun bat mugitzen da mundu horretan, eta berak hartzen du musika taldeen ardura.

## Eta jaialdia antolatzeko dirutza handia behar da; metxeroak saltzen ez da diru hori lortzen...

Lagunei maileguak eskatzen dizkiegu.

Gutako batzuk geure dirua ipini beharra izaten dugu. Bakoitzak ahal duena ematen du. Dirua itzuli egiten da gero. Edaria konfiantzazko banatzaile bati hartzen diogu... Hala ere, jaialdiaren bidez ez dugu dirurik irabazten; zorrak kitatzeko justu-justu.

## Lan gogorra ere egin beharko duzue...

Bai. Azken egunetan, batez ere. Baina merezi du. Jendea etorri eta ondo pasatzen badu, gu pozik.

## Iazko arrakasta errepikatzeko asmorik?

Aurtengo jaialdia iazkoa bezain arrakastatsua –edo arrakastatsua goa– izatea espero dugu. Itzela izan zen! Egia esan, Gatibuk jendetza handia erakarri zuen... Goizaldeko 3etarako ez geneukan ez edaririk, ez kanbiorik... Dena dela, aurtun gaueko kontzertuei ez ezik, egun osoan egingo diren ekitaldiei ere eman nahi diegu indarra. Polita izango litzateke Txorierriko eta Bizkaiko gazte guztiek gurekin parte hartzea.

## Egitaraua

### Apirilak 24

11:00etan Txupina

11:30ean Kalejira hainbat talderekin

13:00etan Triki bertso poteoa

Zaharrak Berri Tour taldearekin: Xabier Silbeira, **Fredi Paia eta Jokin Uranga**

15:00etan Herri bazkaria frontoian.

Animazioa. Ostean jolas mugikorak

21:30ean Kalejira joaldun eta tinba-leroeekin

22:30ean Suzko malabareak

23:00etan Kontzertua: Zein, Kuraia eta Urgabe





# Mikel Zarate 1933-1979, 25 urteren ostean gurekin

Orain dela 25 urte Gure Mikelek utzi bagintuen ere, bere itzalak gure artean bizirik jarraitzen du oraindik. Mikel idazlea, irakaslea, abadea eta herriko gizona izan genuen. Horrezaz gainera, etxeko euskaratik abiatuz, baturantz jo zuen bere lan oparoan. Hurrengo orrialdeotan Mikel ondo ezagutu zuten lagunaren nahiz ezagutu berria duen gazte baten testigantza bildu dugu.

Iñaki Aretxabaleta, ikaslea



## “Mikelen bizitza ezagutzeak bere lana ulertzen lagundu dit”

Martxoaren 12an Juan Luis Goikoetxeak, Iskander Ojangurek eta Iñaki Aretxabaletak idatzitako *Gure Mikel* liburua aurkeztu zen Lezaman. Lan honetan Mikel Zarate ezagutu zuten hainbat pertsonaren testigantza batu dute egileek. Aikor!-ek Iñakirekin hitz egin du, liburuak 20 urteko gaztearengan izan duen eragina jakiteko.

**Iñaki, nola sortu zen proiektua?**

Duela hiru urte Juan Luis genuen irakasle institutuan, eta Mikelen heriotzaren 25. urteurrena zela eta klaserako lan bat egitea ideia ona izango zela komentatu zigun. Orduan, datuak biltzen hasi ginen, baina informazio handia batu genuenez liburua egitea bururatu zitzaion berari.

**Eta zein iturritara jo zenuten?**

Liburuak eta entziklopediak kontsultatzeaz gain, hainbat pertsona elkarrizketatu genituen: Ritxar Zarate, Ander Manterola, Lontzo Zugazaga, Jesus Eguzkiza...

**Gero...**

Elkarrizketa horiek guztiak transkribatu ondoren, testuak zuzendu eta bizkaiera literaria pasatu genituen.

**Lanaren helburua?**

Mikel Zarate pertsona moduan ezagutzea, batez ere. Zeintzuk ziren bere zaletasunak, zelan egiten zuen lagunaren artean... Horrexegatik, elkarrizketak egiteko orduan jende ezberdina aukeratu genuen; familia,

*“Lanaren helburua  
Mikel pertsona  
moduan ezagutzea  
izan da”*

unibertsitateko lagunak eta abadeak, besteak beste.

**Hainbat elkarrizketa egin ondoren zerekin gelditu zara?**

Oso gizon zabala zela Mikel. Lauroetan meza ematen zuen eta San Miguel egunean bazkaltzera zein etxetara joango zen mezan bertan esaten zien eliztarrei. Horrezaz gainera, apustuzalea ere bazen; bere indarra neurtzeko beti prest. Etxe ondoko bolalekuan txingen lehiaketa antolatzen behin. Berak ez zuen inoiz halako txapelketa baten parte hartu, baina bere buruari esan zion –“Egingo ez dut, ba!”-. Eta irabazi egin zuen. Mikelez aritzen zirenean –“Gure Mikel”- esaten zuten guztiek, eta esaera liburuaren izenburutzat hartu dugu geuk.

**Zein izan da, zure ustez, testigantzarik hunkigarriena?**

Guztiak orokorrean, baina Ander Manterolarekin gogoratzen naiz bereziki. Elkarrizketa bukatzerakoan galdetu genion –“Anekdotaren bat?”-. –“Oso lagun ona izan zela nirea eta ni ere berarena...”- hunkitu egin zen Ander orduan...

**Eta zuk, zein anekdota azpimarratuko zenuke kontatu dizkizuetenen artean?**

Bere anaia Ritxarrek kontatutakoa. Francoren garaian mezan bertsoak

*“Ez nuen bere obra  
ezagutzen; bere bi  
liburu irakurri ditut  
orain”*

botatzea txarto ikusita bazegoen ere, Mikelek baimena eskatu zion abadeari Talotxiki laguna hil zenean. Abadeak ezetz esan zion. Baina Mikel irrikan zegoen lagunari agurtzeko aukerarik ez zuen izan eta. Inori esan gabe altxatu, hilkutxara hurbildu eta bertsoan ari zitzaion Talotxikiri.

**Liburua egin baino lehen ezagutzen zenuen Mikelen obra?**

Oso gutxi; abadea eta idazlea zela entzunda neukan, baina... Orain bere bi liburu irakurri eta gustuko izan ditut. Lezamako euskaraz idatzitako liburuak, gainera... Bere bizitza ezagutzeak lagundu egin dit bere lana ulertzen.


**Gaitza suertatu zaizu liburuak egitea?**

Beno, non sartuko nintzen hasieran ez nekiena ziur nago, esfortzu handia egin behar izan dugu eta. Dena dela, lan polita izan da; merezi izan du.

Gotzon Garate, idazlea

## “Ziur nengoen Mikelek lan handiak egingo zituen”

Gotzon Garate idazleak Deustuko Unibertsitatean ezagutu zuen Mikel. Gotzon Soziologia Fakultateko irakaslea zen; Mikel, berriz, Filologia Hispanikoa ikasten zebilen. *“Pasilloetan ikusten genuen elkar, baina noiz edo behin hitz egingo nuen berarekin”*, gogoratu du Garatek. Gerora, 1978. urtean hain zuzen ere, Euskal Filologiako ikasketak sortu eta Mikel hartu zuten irakasle. Euren arteko harremana estutu eta sendotu egin zen orduan.



### Nola gogoratzen duzu Mikel?

Oso pertsona jatorra eta baikorra zen. Ikasleek izugarri maite zuten, alde batetik gizon jakintsua zelako eta bestetik harreman oso onak zituelako eurekin. Mikel langile porrokatua zen; Labayrun, Deustuko Hizkuntza Eskolan eta Unibertsitatean irakasle izateaz gain, gauaz ere ordu luzeak ematen zituen lanean... Hainbeste lanez lehertu egin zen azkenean, nire ustez.

### Eta bere heriotza...

Kolpe handia izan zen guretzat. Berria eman zidaten Leitzan nengoela, eta berehala itzuli nintzen Bilbora hiletan parte

hartzeko. Gazteak lur jota zeuden, baina bizitzak aurrera egiten du eta guk ere horrela egin behar. Mikel Aste Santuan hil zen eta ikasturtea amaitu barik zegoen oraindik... Santi Onaindia ekarri genuen bere ordeiz.

### Zelako eragina izan zuen Mikelen obrak euskalgintzan, zure ustez?

Mikelek herria eta goi mailako literatura elkartu egin zituen, nire iritziz. Idazleek esaten dutena ez ezik nola esaten duten ere inportantea dela pentsatzen dut, eta Mikelek ederki azaltzen zizkigun gauzak. Gainera, euskara batuari bere herriko eus-

kararen aberastasuna txertatu eta euskara bikaina lortzen zuen liburutetan. Nire iritziz, Mikelen heriotza oso galera handia izan da euskalgintzarako, bera euskararen jabe zelako. Lan handiak egingo zituen ziur nengoen ni...

### Eta zuregan?

Literaturari dagokionez, eragina baino gehiago, bide berberetik jo genuela pentsatzen dut. Ideia bat esaldi askoren bidez azal daiteke, baina guk esaldirik onena –bihotzeraino ailegatzeko modukoa– topatu behar dugu. Mikelek horrela uste zuen, baita nik ere.



# “Mikel ikasleak harrapatu eta mobilizatzeko gai zen, liburuak aztertuz, sormena egiteko eskatuz...”



## **Nola ezagutu zenuen Mikel?**

Oso egoera berezian izan zela esan beharra dago. Izan ere, nik filologia ikasi nuen Donostian, eta berak, berriz, Bilbon. Baina biok karrerako tesina Deustun egin genuen, berak Txorierriko euskararen gainean, eta nik Nafarroako Deierri ibarreko toponimiari buruz. Hantxe ezagutu genuen elkar, eta hantxe ere ikusi genuen hango euskaldunak hemengoekin elkartu behar genituela. Hori 1974an izan zen. Handik gutxira Hernanin lanean nengibela, Ander Manterola eta Mikel Zarate hitzaldi sorta ematera etorri ziren eta euren bitartez jakin genuen udan ikastaroak egiten zirela Derion. Kontuak kontu, bost irakasle apuntatu ginen.

## **Zer moduz Derioko ikastaroetan?**

Hirugarren mailan jarri gintuzten, eta Karmelo Etxenagusia, Lontzo Zugazaga eta Mikel bera eduki genituen irakasle. Puntu honetan aitortu behar dut oso irakasle ona zela, oso atsegina. Bere klaseetan oso gustura geunden, argi baitzegoen oso gogokoa zuela literatura, eta, bere pedagogiarekin, literatur zaletasunaren bidean jarri gintuen, literatur produkzioaren bidez, erretratuak eta deskripzioak eginaraziz. Eman eta eginarazi ere egiten zigen, eta hori oso interesgarria zen. Hurrengo urtean euskararen historia eman zigen, eta hor erakutsi zigen Etxeparerengandik hasita euskalkiak zelan

joan ziren bereizten gero eta gehiago. Hurrengo urtean hil zen Mikel, eta handik gutxira deitu zidaten bere klaseak emateko.

## **Lagun minak egin zineten, ezta?**

Bai, oso lagun egin ginen. Donostiako gure etxera hainbat bider etorri zen eta, oker ez banago, Mikelek arreba bat galdu zuen eta orduan, nik uste dut, bere arreba posible hura bezala ikusten ninduela.

## **Zortea ere ematen ei zenion.**

Derioko ikastaroan geundela, Irungo literatur sarira aurkeztu zen eta, originalak Donostiara eramane behar zituenez, nik eramane nizkion. Saria irabazi zuen eta nik zortea eman omen nion. Gero etxera etorri zen, saria jaso eta Mitxelena aurkeztu nion.

## **Zer eragina eduki zuen Mikelek zugan?**

Mikelek erakarri egiten zuen. Jendea sartu egiten zuen gaian, eta pedagogia aldetik oso inportantea da hori. Bera gai zen ikasleak harrapatu, motibatu eta gaian sartzeko, eta ez bakarrik literatur kritika eginez, baizik eta liburuak aztertuz, sormena egitea eskatuz... eta horretan ez geunden ohituta. Harrezkero askotan erabili ditut berak irakatsitako teknika horiek klasean.

## **Abade zela ezagutu zenuen...**

Mikel oso emankorra zen, oso maitagarria, eta erlijio-krisi momentu hartan

Mikel Zarateren omenaldia dela eta, Lezaman egindako mahai-inguru batean Mikelen lankidea eta lagun handia izan zen Miren Egaña ezagutzeko parada egokia izan dugu. Bera izan da lehenengo emakume euskara katedraduna. Bere nortasun sendo, euskaltzale eta alaitik, Mikelen hainbat zertzelada, haren izaera eta berarekin bizi izandakoa kontatzen dizkigu hurrengo lerrootan.

Mikel mundutik askoz hurbilago zegoen nik Derion ezagutu nituen beste abadeak baino.

## **Eta euskara kontuetan?**

Bergarako batzarrean elkarrekin egon ginen. Bertan, Mikelek txosten bat irakurri zuen, bizkaieratik abiatuz baturantz joan behar zela defendatzen zuena. Eta arrazoirik gabe egurra eman zioten, batez ere Jean Louis Davantek. Baina inor batuzalea bazen, hura Mikel bera zen, jakina dakigunetik abiatuta, logikoa den bezala. Arlo horretan aitzindaria izan zen. Gainera, euskara landua eta aberatsa zuen Mikelek. Inguruko euskalkiak ondo ezagutzen zituen. Pena da hain goiz joan izana, bide luzea bezain handia egingo zuen, bestela.

## **Eta bere nortasuna?**

Oso egunekoa zen, euskal gaiak oso ondo uztartzen zituen, hitz jario handikoa zen eta oso ondo josten zituen gauzak. Nik uste dut lehendabiziko aldiz gertatu zela Euskal Herrian holako esatari ona, hizkuntza ere oso ondo ezagutzen zuena, hain jantzita egotea. Berak bazekien aprobetxatzen herrian ikasitako guztia eta, modu berean, filologian ikasitako teknika guztiak euskarari itsatsi zizkion. Hori zen bereziena berarengan eta baita ahaztezina ere.



# Mikel Zarate familian

Asko idatzi izan da Mikelen obrari buruz, idazle bikaina izan zan eta. Baina orain pertsona moduan zelakoa zan jakingo dogu (eta batez be zelakoa zan umetan) anekdota batzuen bidez.

Mikel kirolzalea zan. Pelotea asko gus-tatzen jakon, baina bolozalea be bazan. Domeka eta jai egunetan Lauroetan mezea emon ostean etxera joaten zan bazkaltzen, baina lehenago Goiko Tabernako bolalekuan partida batzuk jokatzen ebazan anaia Jonegaz eta auzokoa-kaz: Madaleno, Benito Usutikoa, Pedro Mari Beitia Akirrikoa... Victorrek, Benitoren aitak, "abade mailukiak" deitzen eutsen milikotei, eta Mikelek beti esaten eutson: "Zer, Victor, lata bat "abade mailu-ki" zabalduko dogu?".

*"Mezea emon ostean  
Goiko Tabernako  
bolalekuan partida  
batzuk jokatzen  
ebazan"*

Mikel jatuna zan. Domeketan semina-roria joaten zanean mermelada eta yogu-rrak eroaten ebazan etxetik, han ez ziran egoten eta.

Baina jo daigun atzerantz. Mikel 1933an jaio zan Izagirretarren etxean (Batzokia egoan etxea), Jose Miguel Zarate eta Julia Lejarraga gurasoak bertan bizi ziran alkilerrean eta. Handik urtebete-ra Urribarrira joan ziran bizitzten, Jose Miguelen osaba Santik Ferrocarriles-en loterian tokatu jakon diruagaz egindako etxera. Han anaia Jon jaio zan 36an. Nazionalek Bilbo hartu eta gero, aita 4 urtez preso eroan eben, lehenengo Carmeloko gartzelara eta gero Cuellarrekora (Segovia). Beraz, Mikel eta Jon aita barik hazi ziran euren lehenengo urteetan. Geroago, Mikelek 10 urte ebaza-la, Lejarrenera bizitzten joan ziran laurak amama Atanasia eta aitite Justogaz, eta han anaia Ritxar jaio zan 47an.

*"Koadrillakoakaz  
sagararak eta ostuten  
joaten zanean, bera  
bakarrik harrapatzen  
eben, despistatu itzela  
zalako"*

Mikelek Goiko Eskoletan ikasi eban gerra denporan eta Eskola Barrietan gero-ago, baina horreek egin arte, orain Oxangoiti taberna dagoen etxean ipini ebezan eskoletan ibili zan.

Eskolatik urtenda, Mikel koadrillakoa-kaz sagarrak eta ostuten joaten zanean, bera bakarrik harrapatzen eben, despista-tu itzela zalako.

Betaurrekoak be sarritan galtzen ebazan, baina topatzen ebezanek beti esaten eben: "Ostera be galdu dituz Mikelek antiojuak!".

Behin baten ia itota atara eban Paco Larreak Asua errekatik Zalloren etxe ondoan.

Lejarrenera bizitzten joan eta lasterrera izterrondoan minak sentitzen hasi zan. Lezamako medikuak (Jose M<sup>a</sup> Romero kanarioa) beroa emoteko esan eutson Juliari. Baina gero eta txarrago egoan Mikel, eta azkenean apendizeta zulatu egin jakon. Arin-arin Bilboko klinika batera eroan eta apendizitisetik operatu eben. Baina hilabete bian edo zauria zabalik euki eban eta Bilbora joan behar izaten eban amagaz eta kurak egiten, Kurtzeraino astoz eta gero trenez.

*"Seminarioan sartu  
baino lehen andragaia  
topatzeko astia be  
euki eban"*

Mikel 14 urtera arte ibili zan eskolan. Gero aitari lagundu eutson etxegintzan, batez be Bizkai aldean. Beharrean ebilela Bilboko akademia batean hasi zan lanari buruzko gaiak ikasten.

Laster seminarioan sartu eta beharra utzi behar izan eban, baina lehenago andragaia topatzeko astia be euki eban, Larrabetzuko neskato bat (hau be itzi eban seminaria sartu baino lehen).

Anekdota asko geratu dira kontatu barik, baina artikulutxu hau irakurri ostean Mikel hobeto ezagutzen dogu, ezta?

Testua eta argazkia: Fernando Urrutikoetxea



Mikel, gurasoak, anaiak eta loba Alazne

## Apirileko ekitaldiak

### Apirilak 2

22:00 Pilota partiduak (profesiona-lak). Lezamako frontoian.

### Apirilak 3

22:00 Gaizkaren "Ekidazu" diskoa-ren aurkezpena. Oskorriren kontzertua zuzenean. Lezamako frontoian.

### Apirilak 4

12:00\* Meza nagusia ( Gotzaina: Karmelo Exenagusia). Lezamako elizan  
13:00 Abesbatzak kontzertuan. Lezamako elizan.

14:30 Herri bazkaria. Lezamako fron-toian.

17:00 Bertsolariak: Amuriza, Azpillaga, Elortza, Etxahun, Lopategi eta Peñagarikano. Aurkezle eta gai jartzai-lea Pedromari Goikoetxea. Lezamako frontoian.

19:00 OMENALDIAREN AMAIERA. Lezamako frontoian.

OHARRA: \* Asteriskoarekin agertzen den ordua konfirmatu barik dago.

# Ameriketara joan nintzan

Zentimorik gabe handik etorri nintzan...



Testua eta argazkia: Amagoia Guezuraga

Zentimorik eroan ez, baina gitxienez Ameriketako Estatu Batuetara sartzeko dolar batzuk izatea beharrezkoa zan.

Handik etorri? Batzuk bai, gainera ardiak kontatzen espezialistak eginda, eta diru apur bategaz ere.

1892-1924 bitartean hainbat txorierritar joan ziran Ameriketara. Artean ere joandakoak badagoz, eta haren irrintzira beste guztiak joan.

Aikor aldizkarian, hiru hilabetero eta urtea amaitu arte, Ipar Ameriketako Estatu Batuetara urte horreetan (1892-1924) joandako batzuen datuak agertuko dira.

Izen-abizenak, kontsultatutako dokumentuetan agertzen diran moduan idatziko dira, izan be gauza bat zan euskaldunak esandakoa eta beste bat inmigrazioko amerikarrak ulertutakoa. Horrela, Larrabetzukoak sarritan izaten dira \*from Larabessua, Lerabessua, Laralezua...

New Yorkera heltzeko behar ziran egunak irteerako portuaren arabera aldatzen

ziran: Le Havretik, 21 egun; Chebourgetik, 7/8 egun, eta Bilbotik, 14 egun.

Behin helduta, esan eta erakutsi behar zan azken abiapuntuko helbidea, edo kontratuaren akordioa. Adibidez, Larrabetzuko Antonio Villak eta Antonio Lecuek sei urteko baimena eben.

Hona hemen urtarrilean, otsailean eta martxoan heldutakoen zerrenda.

## URTARRILA

| Izena              | Adina | Nongoa       | Noiz heldu | Nora          | Kontaktua                    |
|--------------------|-------|--------------|------------|---------------|------------------------------|
| Jesus Egusquiza    | 20    | Sondika      | 1920/01/06 | Mountain Home | Lehengusua, Agustin Bedegana |
| Tomas Menchaca     | 20    | Loiu/Sondika | 1920/01/06 | Mountain Home | Lehengusua, Agapito Bidegane |
| Isidoro Goicoechea | 27    | Sondika      | 1920/01/06 | Boise (ID)    | Koinatua, Ambrosio Elorriaga |
| Rita Goicoechea    | 24    | Erandio      | 1920/01/06 | Mountain Home | Lehengusua, Agapito Bedegane |
| Manuel Elguezabal  | 17    | Erandio      | 1920/01/06 | Mountain Home | Osaba, Saturnino Elguezabal  |



## MARTIA

| <i>Izena</i>             | <i>Adina</i> | <i>Nongoa</i> | <i>Noiz heldu</i> | <i>Nora</i>       | <i>Kontaktua</i>            |
|--------------------------|--------------|---------------|-------------------|-------------------|-----------------------------|
| Timoteo Achaerandio      | 34           | Sondika/Loiu  | 1910/03/20        | Winnemucca(NV)    | Koinatua, Braulio Gastañaga |
| Daniel Negure            | 21           | Larrabetzu    | 1911/03/19        | Winnemucca(NV)    | Osaba, Ramond Berriedo?     |
| Jesus Bilbao             | 18           | Loiu          | 1913/03/15        | Elko (NV)         |                             |
| Cipriano Begoña          | 19           | Loiu          | 1913/03/15        |                   |                             |
| Pilar Echevarria         | 33           | Erandio       | 1914/03/15        | Boise (ID)        | Senarra, Pedro Izarra       |
| Juan Amarica             | 47           | Lezama        | 1915/03/18        | Barkuko marinela  |                             |
| Francisco Echevarria     | 20           | Zamudio       | 1915/03/18        | Mountain Home     | Laguna, Pelayo Aldana       |
| Jose Aldana              | 17           | Zamudio       | 1916/03/16        | Springfield (ID)  | Anaia, Pelayo Aldana        |
| Miguel Lecue             | 25           | Larrabetzu    | 1920/13/14        | Ryle (CA)         | Anaia, Gregorio Lecue       |
| Juan Uriarte             | 56           | Erandio       | 1921/03/12        | Mountain Home     |                             |
| Julia Irigoyen y Arbe    | 24           | Loiu          | 1921/03/13        | Glenns Ferry (ID) |                             |
| Gregorio Dobaran Urrutia | 38           | Loiu          | 1921/03/13        | Glenns Ferry (ID) | Familiartekoa, J. Dobaran   |

## OTSAILA

| <i>Izena</i>          | <i>Adina</i> | <i>Nongoa</i> | <i>Noiz heldu</i> | <i>Nora</i>              | <i>Kontaktua</i>            |
|-----------------------|--------------|---------------|-------------------|--------------------------|-----------------------------|
| Lorenzo Uribe         | 34           | Larrabetzu    | 1904/02/17        | Helbide zehatz barik     |                             |
| J. Bantista Echeandia | 21           | Larrabetzu    | 1904/02/17        | Helbide zehatz barik     |                             |
| Pedro Zamacona        | 22           | Zamudio       | 1906/02/25        | Boise (ID)               | Laguna, Manuel Arraqui      |
| Felix Gamboa          | 18           | Zamudio       | 1906/02/05        | Boise (ID)               | Laguna, Manuel Arraqui      |
| Bruno Echevarria      | 19           | Erandio       | 1910/02/25        | Humbolt (NV)             | Osaba, Vicente Aranburu     |
| Gregorio Lecue        | 28           | Larrabetzu    | 1916/02/29        | Cambel Creek-Austin (NV) | Laguna, Arrizabalaga        |
| Tomas Echevarria      | 28           | Zamudio       | 1917/02/20        | Mackay (ID)              | Anaia, Francisco Echevarria |
| Pedro Orue            | 18           | Lezama        | 1919/02/23        | Barkuko marinela         |                             |

Tauletan aipatutako en argibide gehiago nahi izan ezker (adibidez, irteerako portuaren eta barkuaren izena...) edo baten bat aurkitu nahi izan ezker, idatzi mezu bat [alkortxori@yahoo.es](mailto:alkortxori@yahoo.es) helbide elektronikora.

Zerrendako gehienek badabe norabide, baina badagoz marinel moduan sartutako batzuk.

EEBBetan lege sartzeko neurriak bete eta txandak itxaron behar izaten ziran, baina legearen aginduei jaramonik egin barik, barkuetan lan egin eta unerik egokienean portuan gelditzea zan beste aukera bat.

Jon Oñatibia Suplemento dominical de La Voz-en bildutako datuetan agertzen dan moduan, 1924an onartutako legearen bitartez, urtero 131 artzainek izaten eben EEBBetan sartzeko baimena; geroago, 1950ean, 250era igo zan neurria, eta 1952an, 500era.

Ameriketan bost urte igaro ondoren, bertako herritartasuna eskatzeko aukera emoten eutsien legeak, baina gehienak hiru urteko kontratoagaz joandakoak iza-


ten ziran eta epe horren ostean Euskalerrira itzuli behar izaten eben.

Ameriketako artzainen bizitza lau arotan banatzen dabe, eta urtarilean, otsailean eta martian —neguaren erdian— heldutakoak arrantxoko lanekin egiten dabe topo.

Artzainen arrantxoko bizitza Gabonak aldera hasten da, eta hemen hiru hilabete inguru emoten dabe. Orduan jaiotzen dira bildotsak, eta taldean egoten irakatsi behar jaken. Okelatarako diran bildots arrak zikiratu egiten ziran, hortzak erabiliz, eta emeei buztana ebakitzen jaken.

Otsailean eta martxoan bildotsak markatzen dira, eta ardiak “triskilatu”.

Lan guzti honeek amaitzen diranerako artaldean prest dago arrantxoetatik ateratzeko.



1973ko martxo National Geographic, Idahoko bizimodua.



# Zamudioko Udaletxea berriztatu dute

Berriztatze lanek urtebete iraun dute eta ondoren altzariak jarri dira. Otsailetik aurrera, beraz, Zamudioko Udala bere betiko egoitzan dugu: Sabino Arana plazan. Otsailaren 21ean, Udaletxeko ateak zabaltu ziren, herritarrek berriztatutako instalazioak ikus ditzaten. *"Herriarentzako ekitaldia antolatzea pentsatu genuen, izan ere, Udalak herriko instituzioa da eta zamudioztarrek ezagutu behar dute"*, esan dio Aikor! aldizkariari Sorkunde Aiarza alkateak. Egun horretan instalazioak berrizatzeko aukera izan zuten bertara bildu zirenek. Aurretik aurrezkua dantzatu, zinta ebaki eta udaletxea bedeinkatu zen.

Berriztatze lanei dagokionez, beste pisu bat egin da, sotoa. Hura lur azpian egin da eta bertan artxiboa, informatika gela eta igogailuko makinak jarri dira. Beheko pisuan, berriz, jendearentzako harrera lekua, gizarte-laguntzailea, kultur teknikaria, ekonomilaria eta itzultzailea daude.

Lehenengo pisuan jarri dira alkatearen eta alkateordearen bulegoak, osoko bilkuren gela, zinegotzien batzargela eta idazkariaren bulegoa. Bigarren pisuan zerbitzu teknikoak daude: aholkulari juridikoa, arkitektoa, aparejadoreak, delineatzailea eta ingurumen teknikaria.

Bigarren pisu hori bat metro bat altxatu da gorantz. Sorkundek azaldu digunez, eraikinaren estruktura nahiko berezia da —oso karratua da— eta Bizkaiko Foru Aldundiak katalogatuta dauka; beraz, irizpide batzuk errespetatu behar izan dira berriztatze lanak egiteko.

Zamudioko Udaletxea barrutik apaintzeko, diseinua eta modernotasuna zaindu dira eta lehengo eta oraingo materialak (harria, egurra, metala...) erabili dira. Horrezaz gainera, altzari berezi batzuk zaharberritu dira: arkak, bankuak eta erloju bat. Ordenagailu berriak ere ipini dira, pantaila laua eta indar handiago dutenak.

Bitxikeria lez aipa daiteke egurrezko panelak eta kristalak ipini direla espazioak banatzeko; leku gehiago behar izanez gero, erraz kentzeko modukoak dira. Instalazio elektrikoa ere kontuan hartu eta argi zuzena eta ez-zuzena instalatu da eraikin osoan, baita hari musikala ere. Udaletxea berriaz egokitu da elbarrikeria ere erabiltzeko modua izan dezaten: haientzat egokitutako komuna eta igogailua jarri dira.



Ohorezko aurrezkua dantzatu zen zinta ebaki baino lehen.



Osoko bilkuren gelaren ikuspegia.

Zamudioko Udalak 1.220.854 euro inbertitu du berriztatze lanotan. *"Hemendik 20 urtera herriak eduki ahal dituen beharriaz erantzuteko moduko eraikina egin dugu"*, azaldu

digu alkateak. Azkenik jakinarazi digu, inork instalazioak ezagutu nahi baditu, berak edo beste funtzionario batek atsegin handiz erakutsiko dizkiola.



# Jaio da Derioko Zerbitzu eta Merkataritza alkarte

Martxoaren 17an euki eban jendaurreko bataioa Derioko Zerbitzu eta Merkataritza alkarte profesionalak. Derioko Kultur Aretoan izan zan, eta ekimen hau bultzatzen dabilen merkatarien ordezkariak eta herri erakundeen aldetik zein arlo pribatutik sustapen lanak egiten jardun diranek hartu eben parte. Ekimen honeri bere irudi eta lelo propioa emateko ideien lehiaketea deitu zan joan dan otsailean, irabazleentzako 200 eurotako sari banagaz. Vudumedia, Jose Luis Revuelta (Txelu) eta Joseba Zaratek osotutako taldea, **DANERIK PARAJE !** leloagaz, eta Aitor Fernández lezamatarra, logoaren atalean, izan dira irabazleak.

Dagoaneko 60 bazkide dituan alkarte-ko presidente dan Marimar Melladoren esanetan, ideia honek oso harrera ona euki dau bertoko merkatarien artean – zerbitzu eta merkataritza arloetakoak, hobeto esanda –, arlo hau indartu eta bultzatu beharra ikusten ebelako.

Derioko Udalaren eta Txorierriko Behargintza Bulegoaren laguntza eta babesa dauan alkarte honen helburuak askotarikoak dira, baina multzo bitan batu daikeguz: alde batetik, bat egin abots bakarra eta sendagoa eukiteko erakun-

deen aurrean eta herrian urtez urte ugaltzen doazen plangintzetan; bestalde, kon-tuan euki behar da Deriora, gaur egun, 20000 pertsona jatorkuzala egunero, lana, ikasketak edo bestelango arrazoiengaitik, eta horreei eskaini beharreko zerbitzuen kalitatea hobetzea ezinbesteko erronka bihurtu dala.

Barrura begira be, helburuak ez dira apalagoak. Hau da, egunez egun merkatariei sortzen jakezan arazo eta beharrianei erantzun amankomunadua emoteko bitartekoak garatzea: prestakuntza ikastaro



bereziak ordutegi egokietan, hornidurea, finantzaketea, publizidade eta antzekoetan baldintza hobeak, zerbitzu eta merkataritzaren profesionalizazioa eta informatizazioa, besteak beste.

Azkenik, aitatu behar da alkartekideen kezka bateri be bidea zabaldu gura deustola ekimen honek, derioztarren artean hartuemonak euskeraz garatzeko ahaleginari hain zuzen be, dendara, ileapaindegira edo zeozertan goazenean - bidaiaren bat antolatzen, egunkaria erosten, betaurrekoak konpontzen,... - euskeraz zein gaztelera atendituak izateko oztoporik egon ez daiten.

Hori guztiori bezeriari zerbitzu hobe eman gurean.

Amaitzeko, esan behar da bazkide izateko ondoko datuokaz fitxa bat bete behar dala eta Marimar Melladori helarazo (Asesoría Asder Aholkularitza Bulegoa): merkataritza izena, helbidea, hartuemonetarako pertsona baten izena eta telefonoa. Horrezaz aparte, hiru hilabeteko 30 eurotako kuota ezarri da bazkideentzat.

Hasiak dira dagoaneko alkartekoak bere lehenengo ekintza prestatzen: alkar-tearen web orria.





# Politeknika Txorierri, 25 urte irakaskuntzan



Testua: Itxaso Marina / Argazkiak: Politeknika ikastegia Txorierri

**Politeknika Ikastegia Txorierri S. Koop. 1979-80ko ikasturtean sortu zen. Harrezkero, gazteak lan-mundura bideratzea du helburu nagusi, eta horretarako irakaskuntza ezin hobea eskaintzen die ikasleei. Politeknikak, beraz, 25 urte beteko ditu aurten, eta urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatuko dira urte osoan zehar. Ospakizun-ekintzen berri emateaz gain, ikastegiaren ibilbidea izango dugu hizpide hurrengo orrialdeotan.**

Txorierriko apaizek eta Matrici S. Koop.-k bultzatu zuten nagusiki Politeknika Ikastegiaren sorrera. Horrela, bada, batxilergo-ikasketak egiteko aukerarik ez zuten gazteei lan-merkatuan sartzeko beste aukeraren bat emateko ardura zegoen garai hartan. Horrezaz gainera, Matrici enpresak ere bazuen langile kualifikatuen beharra. Premia horiek kontuan hartuta, Bilboko elizbarrutiak ikastegiaren titulartasuna eskualdatu eta Txorierriko Politeknika sortu zen 1979-80ko ikasturtean.

Elizbarrutiak utzitako Derioko Seminarioko lokaletan kokatu zen Lanbide-Heziketako ikastetxea hasiera batean. Hala ere, 80ko hamarkadako ekonomia eta hezkuntza aldatuek instalazioak egokitzera behartu eta ikastegiaren arduradunak eraikin berria egiteko negoziazioetan hasi ziren Eusko Jaurlaritzarekin. Proiektuak Txorierriko Udalen baldintzabeko laguntza jaso zuen.

Eusko Legebiltzarrak 1989. urtean onartutako legez besteko proposamen bat zela

eta, Lanbide-Heziketako ikastetxea eraikitze-ko eskatu zitzaion Hezkuntza Sailari. Horretara, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Lan Sailaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren, Txorierriko Mankomunitatearen, Aurrezki Kutxaren eta Mondragon Kooperatiba-Korporazioaren babesari esker, zentro berria eraiki zen 1992. urtean. Horren ildotik, ikastetxearen kudeaketa-organoetan Txorierriko Mankomunitatea, Matrici S. Koop., Arteche S.A., Ondoan S. Koop, Ona Pres S. Koop eta Gazte Enpresa Fundazioaren ordezkapena ere aipatzekoa da.

## Zerbitzu publikoa

Politeknika Ikastegia Txorierriker zerbitzu publikoa ematen du. Hortaz, gero eta lehiakorragoa den lan-merkatuaren beharrak betetzeko, prestakuntza arautua –prestakuntza zikloak– nahiz lanerako prestakuntza –langabetuentzat– eta etengabeko prestakuntza –langile aktiboentzat– eskaintzen ditu. Horretarako, maila handiko irakaskuntzaren aldeko apustua egiten du. Gainera, beste erakundeekin ere lan egiten du, HETEL –gizarte ekimenak bultzatutako



Europako zenbait ikastegirekin batera nazioarteko hainbat proiektutan hartzen du parte Politeknikak.





Prestakuntza arautua nahiz lanerako eta etengabeko prestakuntza eskaintzen da ikastegian.

Lanbide-Heziketako Ikastegiaren Elkartea—eta Euskadiko Irakaskuntzako Kooperatiben Federazioarekin esaterako. Era berean, bai Eusko Jaurlaritzako Lanbide-Heziketarako Plan Integraleko Zentroen Sarean bai Mondragon Kooperatiba-Korporazioaren barruan dago.

Beste alde batetik, hainbat nazioarteko proiektutan hartzen du parte Europako zenbait ikastegirekin batera. Horrela, bada, ikasleei beste errealitate sozial eta teknologikoa ezagutzeko aukera emateko helburu du Politeknikak, enpresetan praktikak eginez edota kultura-trukea dela medio. Halaber, teknologia-prestakuntza eta aholku-lanetan dihardu garapen-bidean dauden herrialdeetako ikastetxeetan.

### Zilarrezko Q

Eusko Jaurlaritzak zilarrezko Q delakoa eman zion Politeknika Txorierriri iaz. Sari horren bidez ikastetxearen kalitate-kudea-

keta aintzat hartu zuen eta, bide horretan, golardo hori jaso duen lehenengo Lanbide-Heziketako zentroa dela aipatu beharra dago.

Gaur egun 450 ikasle daude Politeknikan eta Teknologi Batxilergo edo Prestakuntza Zikloen bidez —Telekomunikabide, Fabrikazio Mekaniko eta Ingurumenari buruzkoak kasu— Unibertsitatera zein lan-merkatura sar daitezke. Horrezaz gainera, 550 langilek eta langabetuk jasotzen dute urtero prestakuntza bertan, hainbat erakunderekin sinatutako akordioei esker.

Lan-merkaturako sarbidea errazteko asmoz, Politeknikak lan-orientabide zerbitzua eskaintzen die ikasketak burutu dituzten ikasleei. Zentzu horretan, inguruko enpresekin duen harreman estua eta auto-enplegua bultzatzeko jorratzen dituen kanpainen laneratze-tasa handiak aisatu dituzte.

## Ospakizun-ekitaldiak

Politeknika Ikastegia Txorierriren 25. urteurrena dela eta, ekitaldi sorta zabal antolatu da urte osoan zehar. Dagoeneko ekintza asko —antzerkia, kontzertua eta magia-emanaldia, esate baterako— egin badira ere, hurrengo hiletan ospakizun-ekintzetan parte hartzeko aukera izango dugu.

### Maiatzak 17

2. argazki erakusketa (Hasiera)

### Maiatzak 20-21

Musika klasikoaren kontzertua Arrate Monasterio piano-jolea eta Estefan Madru biolin-jolearekin

### Maiatzak 21

Ikasle ohiek egindako horma-irudi bi inauguratuko dira

25. urteurrena ospatuko da. Hainbat pertsona omenduko dira

### Ekainak 11

Afaria

### Urriak 18

3. argazki erakusketa (Hasiera)

### Urriak 26

Hitzaldia eta ikusi-entzuteko erakusketa Jon Belokirekin

### Abenduan

AENOR enpresak ISO 14001 zertifikazioa emango dio ikastetxeari

### Abenduak 3

Hitzaldia Unai Elorriagarekin

### Abenduak 10

Ikastetxearen historiari buruzko liburua aurkeztuko da

### Abenduak 17

25. urteurrenari buruzko bideo emanaldia izango da.



# “Zuluz ere abesten dugu guk”



Larrabetzuko Gaztelumendi Abesbatza 1992. urtean sortu zen, Musika Eskolarekin zer ikusia zuten herritar batzuek bultzatuta. Urte hauetan gorabeherak izan badituzte ere, 30 bat lagunek osatzen dute taldea gaur egun. Beni Iturrioz presidenteak azaldu digunaren arabera, abesbatzak ez dauka oso maila handiko xederik, *“baizik eta une onak igarotzea gure artean”*. Une onak igaro eta ahalik eta kontzerturik txukunenak eskaintzea publikoari.

## 30 taldekide orduan...

Bai. Bakoitzak bere gauzak ditu, lana eta familia kasu, eta horrexegatik utzi dute batzuek abesbatza. Beti penaz eta itzultzeko asmoarekin, baina gutxi egiten dute hori, sakrifizioa delako azken batean.

## Sakrifizioa?

Gustura egiten dugun gauza izan arren, afaldu ostean entseguak egitera joan behar izatea astean bitan exijentzia da. Gainera, saioak jarraian izaten ditugu askotan... Hori dela eta, taldean, batez ere, edadeko jendea dagoela esango nuke, asti gehiago dute eta.

## Non egiten dituzue entseguak?

Oraintsu arte eskola zaharretan egiten genituen. Leku aproposa zen guretzat, oso sonoritate ona zeukalako. Baina haurtzaindegia zabaldu dute bertan, eta herriko eskolako liburutegira aldatu behar izan dugu aurtan.

## Beste lokal baten beharrik?

Beno, hemen moldatzen gara, baina askatasun gehiago emango ligukeen lokal bat izan beharko genuke. Izan ere, lokala zabaldu eta itxi geuk egiten genuen lehen, eta orain funtzionario baten zain egon

behar. Dena dela, herriko talde guztiok geure gauzetarako leku egokiren bat eduki beharko genuke, nire ustez.

## Laguntzarik jasotzen duzue?

Bai, Udalak dirulaguntza ematen digu, beste talde batzuei bezala. Horrezaz gainera, kuota bat jartzen dugu urtero eta noizean behin, kontzerturen bat herritik kanpo eskaintzen dugunean, ordaindu egiten digute.

## Eta abesbatzak izandako zuzendariak...

Hiru zuzendari izan ditugu: Roberto



## *“Gure helburua ondo pasatzea da, ez oso maila handiko kontzertuak ematea”*

Bienzobas, Juan Carlos Irizar eta Jose Angel Robles. Besteak musikari ospetsuak badiira ere, Jose Angel oso ona izan da guretzat. Zoritarrez, utzi behar gaitu hainbat gauzatan sartuta dabil eta...

### **Zein da abesbatzaren filosofia?**

Gure helburu bakarra abestea da. Hala ere, urte hauetan zehar talde bezala irizpide batzuk garatu ditugula pentsatzen dut. Herri honetan indar politikoak nahiko banatuta daude, eta guk hor bitartean dagoen gauzatzat daukagu geure burua. Orduan, batek zein besteak euren ekitaldietan parte hartzeko eskatu diguten bakoitzean baietza eman diegu, ideologia albo batera utziz.

Beste alde batetik, ondo pasatzea dugu helburu, eta ez oso maila handiko kontzertuak ematea. Zentzu horretan, fenomenoak ez garela badakigu... Ahal dugun heinean herriko ekintzetan hartu nahi dugu parte, batez ere.

### **Nondik ibili zarete herritik kanpo?**

Euskal Herriko hainbat tokitatik, baina oso urrun joan barik gure mugak ere badi-tugulako.

### **Mugak?**

Bai, lehen aipatu dudanagatik –familia, lana...- talde handi bat mobilizatzea ez da batere erraza. Beno, festibal askotan hartu dugu parte: Autolen, Arrigorriagan, Donostiako Victoria Eugenia Antzokian,

Begoñako Aste Koralean, Txorierriko Gabon Kantan Festibalean....

### **Eta zelango erreperitorioa duzue?**

Euskarazko abestiak ez ezik herri guztietako kantuak ere abesten ditugu. Gure taldekide bat munduan zehar ibiltzen da eta kantak ekartzen dizkigu askotan. Horrela, errusieraz, ingelesez, frantsesez... egiten dugu, baita zuluz ere. Hizkuntza guztietan abestu dugula pentsatzen dut.

### **Itzulpenik?**

Batzuetan egiten ditugu abestiari zentzua emateko, baina beste batzuetan hitzek esan nahi dutena... Ezta ideiarik ez! Gureak ez dira abesti arruntak, alaiak eta dibertigarriak baizik. Eta gure erreperitorioa, hortaz, jendearen gustukoa izaten da. Gainera, beste abesbatzen artean inbidia –sanoa, noski- sortu eta abesti horiek eskatu egiten dizkigute eurek abesteko.

### **Juan Carlos Irizarrekin diskoa grabatu zenuten...**

Berak grabatutako *Natura* diskoan gure abesti bat sartu zen. Guk aukera

*“Irizarren diskoa promozionatzeko hainbat kontzertu eskaini genuen Euskal Herri osoan zehar, eta esperientzia hori grabazioa baino askoz politagoa izan zen guretzat”*

aprobatxatu genuen Abesbatzaren diskoa egiteko, baina laguntzako eta guretzako gauza da; ez dago salgai.

Irizarren diskoa promozionatzeko hainbat kontzertu eskaini genuen Euskal Herri osoan zehar, eta esperientzia hori grabazioa baino askoz politagoa izan zen guretzat, toki askotan aritu ginelako... Batzuk kategoriakoak, gainera! Bestalde, Urutarraren himnoa ere grabatu dugu.

### **Zelako bilakaera izan du Abesbatzak urte hauetan?**

Asko hobetu dugu, nire iritziz. Gero, badakizue, boladak daude... Batzuk joan eta beste batzuk etorri egiten dira, eta erritmoa berriro hartu behar. Zuzendari berria topatzea dugu ardura nagusi momentu honetan... Ahots batzuekin nahiko estu gabiltza, gainera... Nolanahi ere, aurrera jarraitzeko asmoa dugu, eta ikusiko da zelango helburuak jartzen dizkigun zuzendari berriak etorkizunari begira.

### **Jende berria taldean sartzea gustatuko litzazueke?**

Bai, duela gutxi hiru lagun berri sartu dira taldean. Jendea animatzeko kanpaina batzuk egin ditugu, baina ez dute oso emaitza onik eduki. Ahal dugun guztietan abesbatzaren propaganda egiten dugu...

### **Jendeak badauka halako kontzertueta-ra joateko ohiturarik?**

Guk baldintzarik gabeko jarraitzaile batzuk baditugu ere –eta eskertzekoa da, benetan-, halako emanaldietara gero eta jende gutxiago etortzen dela nabaritu dugu.


*Testua: Itxaso Marina*

# S.A.T. Legu: Bizkaiko baserriko ortuarien kalitatearen oinarria

Hogei urte baino gehiago daukan enpresa honek Bizkaiko baserrietarako ortuari-landareak prestatzen ditu gero eta kalitate handiagorekin. Aikorrek aukera izan du bilakaera honen azken emaitzak artez ezagutzeko.

Mundu globalizatu honetan Bizkaiko lurralde menditsuetan nekazaritzak ezin du lehiatu, prezio aldetik, lurralde lau eta zabalekin. Horregatik kalitatera jo behar du bertoko baserritarrak eta kalitatea lortzeko, besteak beste, produktu naturalak ekoizten saiatu behar du. Antzina hala izan zen, baina besteen prezioekin lehiatzeko, kanpoko espezieak eta teknika berri eta ez oso ekologikoak sartu ziren gure lurretan. Gaur egun, ordea, oinarrietara itzultzen hasiak gara eta S.A.T. LEGU enpresa ere horretan dihardu jo eta ke.

Enpresa honek Bizkaiko baserri-terrei landareak saltzen dizkie edukiontzia edo kontenedoretan. Beraz, saldutako landareek egoera fitosanitario onean egon behar dute, ez dute eduki behar hondakin toxikorik eta kalitate handikoak izan behar dute. Helburu hori betetzeko Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bioel-ek (Bizkaiko ortularien elkarteak) bultzatuta S.A.T. LEGUko beirazko berotegietan izurriten aurkako borroka naturala pestiziden bidezko borroka ordezkatzeko dabil pitinka-pitinka. Zeregin garrantzitsu horretan Parke Teknologikoko Neiker enpresaren laguntza teknikoa daukate. Eta harrigarria bada ere, ez da lan gehiago egin behar eta, era



berean, gaixo gutxiago ematen da landareetan.

Horrela bada, bertatik ateratzen diren produktuek ziurtagiriak daramatzate eta, laster, beste produktu batzuekin egin den legez, uraza edo letxuga labeldunak dastatzeko aukera izango dugu. Urazetan ez ezik, beste ortuarietan ere kalitatearen eta naturalizazioaren aldeko apustu handia egin da, hala nola piper, tipula, tipuleta, porrua, berenjena, kalabaza, zerba, lekak, aza, piperra eta gainerako barazkietan.

Bisita honetan, Aikorrek aukera izan du esandakoa egiaztatzeko. Horren froga dira, alde batetik, 6.000 metro karratuko beirazko berotegi handiak eta berogailuez epelduak, bestetik ereiteko makinak nahiz desinfektatzekoak eta, azkenik, bertako jabeen jatortasuna. Hori ikusita ez dago zalantzarik, bertoko produktuak bezalakorik ez dugu aurkituko. Hortaz, kontsumitzaileon apustuak ere garbia izan behar du, zentimo batzuk gehiagoren truke kalitatea eta osasuna ziurtatu.



# DVD

Testua: Alberto Legarreta

Orain urte batzuk DVDa (Digital Versatil Disc) agertu zan, eta hasiera baten garestia bazan be –irakurgailua be bai-, egoera aldatu eta azken bolada honetan zabal dabil. Horretara, bada, 60 euroren truke irakurgailua erosi geinke gaur egun. Era bereab, filmak be merketu egin dira, bideoklubetan gero eta gehiago baitagoz alokatzeko. Teknologia digitala erabiltzen dauanez, ohiko bideoak baino abantaila gehiago emoten ditu DVDak.

DVDa datuen bilketa masiborako dispositiboa da. Nahiz eta CD-ROMaren itxura izan, datuak biltzeko ahalmen gehiago dauka –CD-ROMak 650 Mb eta DVDak 4,7 G- , eta arinago egiten dau datuen transmisioa, beraz. Ganera, DVD irakurleak CD-ROMa irakuri leike, baina alderantziz ez. DVD baten alde biak eta geruza bi erabili daitezke.

## Irakurgailuak

Hurrengo lerrootan DVD irakurleak aztertuko doguz, izan be irakurleak eta irakur-grabagailuak aurkitu geinkez merkatuan.

Irakurleak grabagailuak baino merkeagoak dira –irakurleak 90 euro; grabagailuak 300 euro-. Ha ta guzti be, oraindik ez dago alde bietarako edo geruza birako grabatzailerik merkatuan.

Erosteke orduan zelango formatuak irakuri leikezan hartu behar dogu kontuan. Ikusi dagiguzan, beraz, formaturik arruntak:

-Diskoaren formatoa irakurri. Bideokameraz egindako bideoak DVD-R

| EUSKARRIA                         | Bilketaren ahalmena | Audio Iraupena | Bideo Iraupena |
|-----------------------------------|---------------------|----------------|----------------|
| CD ROM                            | 650 Mb              | 1 h 18 min.    | 15 min.        |
| DVD alde bat / geruza bat         | 4,7 Gb              | 9 h 30 min.    | 2 h 15 min.    |
| DVD alde bat / geruza bikotxa     | 8,5 Gb              | 17 h 30 min.   | 4 h            |
| DVD alde bikoitza / geruza bat    | 9,4 Gb              | 19 h           | 4 h 30 min.    |
| DVD alde bikotxa / geruza bikotxa | 17 Gb               | 35 h           | 8 h            |

edo DVD+R formatoan grabatu ezkerro, irakurleak irakurri egin beharko leukez. Dana dala, ondo egongo litzateke beste CD-RW diskoren bat eta beste DVD-RW formatoren bat izatea.

-Bideoaren formatoak. VCD edota SVCD grabatutako bideoak irakurri leikez DVDak, Mpeg konpresino-modua daukie-eta.

Interneten modan dago Divx formatoa, jendeak DVDtik CDra aldatu leikelako formatu hori erabilia, eta kalitate ona lortuz ganera. Divx formatoan ikusi ahal izateko kodeak izateaz ganera, barritu be egin behar dira noizean behin, baina erraza da automatikoki egiten baita. Piratek formatu hori erabiltzen dabe gehienbat.

-MP3. Konpresino-modu hau asko erabiltzen da, leku gitxi okupatzen daualako CDetan. Adibidez, abesti batek 5MB hartzen ditu eta CD baten 120 kanta baino gehiago sartu leitezke.

-JPEG. DVDak argazkien konpresinoa irakurri baleike, hobeto. Dendetara errelatzera eroaten doguzan argazkiak formato horretan dagoz.

Jende gitxi erosten dau DVD grabatzailea, hainbat diru balio daualako. Horretara, ordenadorean ipinteko erosten dabe, askozaz merkeagoa dalako -180 euro-. Nire ustez, DVD irakurlea erosteko asmoa badogu, VCD, SVCD, MP3 eta JPEG formatoak irakurtzeko gai dala kontuan hartu behar dogu. Era berean, DIVX formatoa irakurtzeko DVDa erosiko dogu soilik formatu-mota hori erabiltzekotan, irakurgailuaren salneurria asko garestitzen dau eta.

Bidali zure iradokizun edo zalantzak hurrengo helbide elektronikoari:  
traktor@euskalnet.net

# Poloniara bidaia

Irakurle hori,

Artikulu labur honetan ez duzu paisaia zoragarrien deskribapenik aurkituko, ezta abentura miragarriarik ere; ozeanorik ez genuen zeharkatu, zortzi milako mendirik ez genuen igo, eta autoestopik egiteko premiarik ez genuen izan. Beraz, beste zerbaite eskainiko dizut.

Hala izan zen, bat-batean; Bilbon geunden eta, gutxigarrenera, Europa ekialdean. Alemania igaro, inmigrazio kontrola gainditu, eta europear zuri errespetagarri izaki, arazorik ez genuen izan ekialdeko herrialde batera igarotzeko. Poloniara heltzean, bertako unibertsitatean Euskara Katedran irakasle dabilen familiartekoa zain zegoen. Pozik. Oso pozik. Gu ere pozik.

Gure ibilbidea klasiko antzera izan zen. Krakovia, hegoaldeko mendiak, Varsovia eta Poznan. Aipatutako hiru hiriak sasoi desberdinetan Poloniako hiriburu izandakoak dira eta, beraz, non nahi dago zer ikusi. Hala ere, nire oroimenean iltzatuta geratu dira Krakoviako judutarren auzoa eta Poznan-en euskara ikasten duten poloniar euskaldunak.

Krakovia handia da, monumentala eta turistikoa; judutar auzoa, aldiz, ez. XX. mende hasierako modernitate arkitektonikoa gordetzen duen auzo xehea da. Eraikin isilek xuxurlatu egiten dute behin-lako tragedia. Leihoak itxita, etxeak utzita, kaleak basamortu eta hunkidura, bion hunkidura ehundaka mila judutarren ilarak kalean imaginatuta. Naziek auzoa hustu egin zuten eta gehienak Oswiecim-era (edo Auschwitz-era) engainatuta eraman zituzten. Zergatik ez ziren matxinatu? Alemaniarrek gezurra esan eta judutarrek sinistu egin zutelako. Alemaniarrek bidaia eta lana eskaini zieten. Judutarrak lapikoak, erropak eta liburuak maletetan sartu zituzten eta, behartuta bazen ere, bidaia egitea onartu zuten. Kontzentrazio zelaietan behartutako lana, heriotza, esperimentuak eta beren buruen gaineko trafikoa ezagutu zuten. Aliatuak, jakitun zeuden.



Poloniako unibertsitari batzuek euskara ikasten dute, nahiz eta guraso euskaldunak ez izan, eta euskal etxerik ezagutu ez arren.

*“Polonian unibertsitatea  
doan den arren, arbela  
ezin da erabili eta  
fotokopiarik ezin da  
atera. Hala ere,  
ikasleek edozer  
ikasteko gogoia dute”*

Gaur egun Polonia nazien sarraskia gaingitzen ari da, komunismoaren menpeko garai grisa ahazten saiatzen den bitartean, eta kapitalismoari ongi etorria ematen dio besoak zabal-zabalik. Hau da, tabernak hemengoak baino dotoregoak dira, baina unibertsitatea doan den arren, arbela ezin da erabili eta fotokopiarik ezin da atera. Hala ere, ikasleek edozer ikasteko gogoia dute. Poznan-eko unibertsitatean, adibidez, etnolinguistika karrera eskaintzen da. Unibertsitateko ikasleek herri baten hizkuntza, historia eta kultura modu oso

eta bateratu batean ikasteko aukera dute, espezializazio aukera askorekin hainbat hizkuntza eta kulturetan: Errusiera, thailandiera, gaztelera, frantsesa, koreera, japoniera, txinera, errumaniera, katalana, finlandiera,... Batzuk euskara ikasten dute. Ez dira linguista edo filologoak, euskaldunak dira. Ez dituzte guraso euskaldunak, ezta euskal etxeak ezagutzen ere, baina gutxi-asko euskaraz egiten dute. Poloniera da beraien ama hizkuntza eta udan etortzen direnean Ipar Euskal Herriko euskaldunak dirudite.

Euskara dutenak dira euskaldunak, ez halabeharrez Euskal Herrian bizi direnak. Folklorismo asetuek ez dute gaur egunerako balio. Euskaldun izateko modu asko dago; baina, gainera, onena zera da: euskaldun izateko modu berriak sortzen ari direla.

*Testua eta argazkia: Karmele Artetxe Sánchez*



# Sondikako Aixerrota

Duda barik, Artxanda mendian dagoen haize errota zaharra da Sondikako herri-ondareko eraikin preziatuenetariko bat. Hura 1725eko abenduaren 10ean inauguratu zen, Manuel de Bildosolak eraiki ostean.

Bizkaian eraikitako lehenengo haize errota Sondikako Aixerrota da. Hura eredutzat hartuta, beste haize errota batzuk egin ziren harrezkero: Getxoko Aixerrota, Ispasterko Aixeder eta Sopelako Arnabar.

XVIII. mendean sikate handia izan zen Bizkaian, eta horregatik ezin zen ur-errota-rik erabili. Horregatik hasi ziren haize-errotak egiten, baina ez ziren oso erabilgarriak eta denbora laburrean erabili ziren.

Begi bistakoa denez, haize errotak goialdeetan ipintzen dira, haize lekuetan, haizeak oztoporik ez duen tokietan. Bizkaiko haize errotek kono moztuaren itxura dute. Hormak landu gabeko harriak ipinita altxatzen ziren; ateak eta leihoak egiteko, berriz, harri landuak ipintzen ziren. Beste alde batetik, hegalei eusten dien ardatzak buelta ematen du, goiko aldean duen uztaiaren bidez. Hala ere, aipatu behar da Sondikako Aixerrotak ez duela hegalik.

Haize-errotek bi solairu izaten dituzte normalean. Lehenengo solairuan errota-riak egoten dira eta bigarreanean etxebizitza; ondoko eraikinak biltegitzat erabiltzen ziren.

Teilatua egiteko lastoa eta adarrak ipintzen ziren.



*Testua eta argazkia: Sondikarra*

# Sukaldaritza

## Etxeko sukaldaritza

### Txokolatezko bizkotxoa

#### Osagaiak

3 arrautza  
200 gramo gurin (mantekilla)  
175 gramo azukera  
200 gramo urun  
Reposteria txokolate tableta bat  
(200 gr)  
Legamia (lebadura) koilarakada bat

#### Prestatzeko era

Ontzi baten gurina urtu eta txokolate tabletea bota, hori be urtu arte. Ontzi horretara arrautza gorringoak bota eta nahastau. Gero bota azukerea, uruna eta legamia, eta ondo nahastau. Beste alde batetik, arrautza zuringoak edur-punturaino harrotu, gatz apur bat egin eta nahastau astiro-astiro beste guztiagaz. Molde bat gurinez untatu eta urun apur batez pasau. Gero bota masa guztia moldera, labara sartzeko. Labea bero dagoanean sartu eta 45 minutu edo ordu bete inguru euki, 175 edo 180 gradutan, eta... On egin!



Mari Tere Onaindia

## Teilak

#### Osagaiak

100 gramo mantekila pomada  
200 gramo azukre hauts  
200 gramo almendra (100 gramo hauts, eta 100 gramo zatiturik eta labetik pasaturik)  
100 gramo laranja ur  
30 gramo irin  
25 gramo Karpy likorea edo antzekoa

#### Prestatzeko era

Mantekila eskuz bigunduko dugu, pomada antzeko testura lortu arte. Azukrea gehitu eta dena nahastatzen jarraituko dugu. Almendra mota biak gehitu eta nahasketa egiten segituko dugu.

Laranja ura edo zukua bota, eta dena nahastatzen jarraituko dugu. Azkenean, irina eta likorea gehitu eta dena nahastatuko dugu. Era horretan eginiko oreak ez du izan behar oso likidoa, ezta oso lodia ere.

#### Labean:

Aldez aurretik labea berotuko dugu 180 gradutan. Orea hartu, bederatzi zati egin –kafe koilarakadaren antzekoak– eta labe-plakan ipiniko ditugu. Labera sartu eta oreka zabalduko da. Gorritzen denean, labetik aterako dugu espatula batekin, eta botila baten gainean ipiniko ditugu teilaren itxura hartzeko. Gozo-gozoak geldituko dira; kafe orduan hartzeko apartak.



Zerurena jatetxea Sondikan



## LIBURUAK

### \*Pailazoen eskuliburua\*

Ansorena

Txirri, Mirri eta Txiribitonen istorio laburrak, emankizunik adierazgarrienak eta abestiak

### \*Eta ni zer?\*

Fernando Murillo

Gazteen mundua eta arazoak aztertzen dira nobela honetan.

Edukazio sentimentala garatzen da nobela honetan.

## DISKOAK

### "Ganbaran bai"

Imuntzo eta Beloki

23 abesti. Urolako trikiti-pieza zaharren bilduma osatua. Esku-soinua eta panderoaz ganera, ohizkoak ez diran musika-tresnak erabiltzen dabez.

### "Jauzi! jauzi! Zapoak"

Zapozain

Iparraldeko talde honen lehen diska 1998.ean agertu zan; honako hau bigarren diska dabe eta artekoan bezala zeltiar eta irlandar doinuak rockarekin nahasten dabez

# DENBORA PASA

## Benetan ezagutzen duzu Txorierri?

Oraingo honetan Txorierri hain garrantzitsua izen dan eta dan ferrokarrila ikutuko dogu. Denetariko tren geltokiak daukaguz; barriak, zaharrak, barri zahar-  
tuak, azpaldian trenak abandonatuak... Herri batera ez da sekula trena heldu. Alkartu argazkiak eta herriak.



**LARRABETZU 1**

**ZAMUDIO 2**

**ERANDIO GOIKOA 3**

**SONDIKA 4**


**LEZAMA 5**

**LOIU 6**

**DERIO 7**



Benetan ezagutzen duzu Txorierri? Emaitzak: A7, B4, C2, D3, E1, F6, G5



# Agenda

## Antzerkia eta filmak

### Sondika

*La modelo contrapublicitaria*, **Oihulari Klown** taldearen eskutik. Apirilaren 2an, 20:00etan, Kultur Areto Ilan. Nagusientzat

**Jon Zabal** magoaren antzezpena. Apirilaren 23an, 20:00etan, Kultura Areto Ilan. Nagusientzat

*Ipuin opari*, **Apika** taldearekin. Apirilaren 30ean, 18:00etan, Ludoteka lan. 3 urtetik gorako umeentzat

### Zamudio

*Piratas del Caribe*, apirilaren 2an; *Buscando a Nemo*, apirilaren 23an; *La liga de los hombres extraordinarios*, apirilaren 30ean. Dorretxean, 19:30etan

**Hika teatroa**, apirilaren 29an, 20:00etan, Zamudio dorrean. Lagatzuk antolatuta

### Lezama

**Ipuin kontalaria**. Apirilaren 23an, 19:00etan, liburutegian. 4 urtetik 10 urte bitartekoentzat

### Zamudio

**Zas zine klubaren 50. urteurrena** (zinema kartelak). Apirilaren 16tik maiatzaren 7ra arte. Liburutegiko ordutegian

## Hitzaldiak

*Komunikazio osasuntsua eta positiboa*, **Begoña Gomez**en eskutik. Martitzenetan, 19:00etatik 21:00ak arte. Lehenengo eguna apirilaren 20a izango da, eta azkenekoa, maiatzaren 8a. Apirilaren 7a baino lehen eman behar da izena. Argibide gehiago Udaletxean

## Ikastaroak

### Zamudio

**Gazteentzako antzerkigintzako ikastaroa**, Zoombados programako irakaslearen eskutik. Apirilaren 19tik ekainaren 25era arte; astelehenetik barikura, 19:00etatik 20:30ak arte, Zamudio dorrean

### Zamudio

*El mago de Oz*. Apirilaren 17an, 17:00etan, Arriaga antzokian. Apirilaren 7a baino lehen eman behar da izena. Argibide gehiago Udaletxean

**Benidormera bidaia**. Maiatzaren 8tik 21era arte. Jubilatu eta pentsiodunentzat bakarrik. Apirilaren 7a baino lehen eman behar da izena. Argibide gehiago Udaletxean

### Lezama

**Sierra de Ancasesera** irteera. Apirilaren 8tik 12ra arte. Gailur mendi taldeak antolatuta.

*El retablo de las maravillas*, **Els Joglars** taldearekin. Maiatzaren 8an, 20:00etan, Arriaga Antzokian. Apirilaren 19a baino lehen eman behar da izena liburutegian

### Larrabetzu

**El mago de Oz**. Apirilaren 17an, 17:00etan, Arriaga antzokian. Apirilaren 1etik 7ra arte eman behar da izena liburutegian

*El retablo de las maravillas*, **Els Joglars** taldearekin. Maiatzaren 8an, Arriaga antzokian. Apirilaren 19tik 26ra arte eman behar da izena liburutegian

## Irteerak

### Sondika

*El retablo de las maravillas*, **Els Joglars** taldearekin. Maiatzaren 8an, 20:00etan, Arriaga antzokian. Apirilaren 19tik 26ra arte eman behar da izena liburutegian

## Txapelketak

### Lezama

**Gomazko paleten txapelketa soziala**. Apirilaren 18an hasiera, frontoian

**Txorierriko herri arteko esku pilota txapelketa**. Apirilean hasiko da

## Erakusketak

### Sondika

**Jon Deuna 2004**. Sondikako jaietako kartel lehiaketa. Apirilaren 5tik 30era arte, liburutegian